



HIZKUNTZ ESKUBIDEEN
BEHATOKIA

OBSERVATORIO DE DERECHOS LINGÜÍSTICOS

OBSERVATOIRE DES DROITS LINGUISTIQUES

OBSERVATORY OF LINGUISTIC RIGHTS

**Hizkuntz eskubideen egoera
Euskal Herrian, 2001ean**

urteko

txosten

Txosten honetan agertzen diren datuez, ondorioez zein informazioaz, orokorrean, baliatu nahi izanez gero, arren, aipatu iturria:

Hizkuntz Eskubideen Behatokia, "Hizkuntz eskubideen egoera Euskal Herrian, 2001ean", urteko txostena argitaratu gabea. Euskal Herria, 2002.

Aitzinsolasa

Kontseiluaren helburua euskararen normalizazioa sustatzea delarik, sorreratik beretik ekin zion azken xede hori lortzeko sail edo ildo desberdinetan bere ahaleginak bideratzeari. Euskararen aldeko akordio sozial eta politiko zabala bilatze-lanean norabide askotara zuzendu behar izan ditu bere indarrak. Horietako bat –garrantziari dagokionez lehen postuetako batean dagoena, noski– euskaldunon hizkuntz eskubideen defentsaren norabidea da.

Hain zuzen ere, norabide horretan lan egiteko sortu du Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak, 2001eko ekainean, Iruñean egoitza duen *Hizkuntz Eskubideen Behatokia*.

Behatokiak, Euskal Herriko herritarren eskubideak babestu eta defendatzea xede duela, erronka teoriko, metodologiko eta etiko handiari gainditu behar izan dio: 'hizkuntz eskubidea' oinarritzeko kontzeptua definitzea. *Behatokiak* bertako hizkuntza erabili eta gizarte alor guztietan garatzeko Euskal Herriko gizarteak duen berezko eskubide gisa hartzen du babestu eta defendatu beharreko eskubide hori.

Txosten honetan bertan aurrerago esaten denez, "ez da *Hizkuntz Eskubideen Behatokia* izan 'hizkuntz eskubidea' kontzeptuaren adiera hori proposatu eta defendatzen lehendabizikoa, ez eta bakarra ere. 1996an Bartzelonan *PEN Club Internationalek* eta *CIEMEN (Centre Internacional Escarré per a les Minories Ètniques i les Nacions)* erakundeek sustatu eta UNESCOk berak babesturik antolatu zen Hizkuntz Eskubideei buruzko Mundu Mailako Biltzarrean Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartu zen. Deklarazio unibertsal horrek printzipio bera hartzen du abiapuntutzat, bere hitzaurrean azaldu bezala, 'hizkuntz desberdintasunaren marko politikoa, bizikidetzan eta elkarren errespetu eta onuran' oinarritzeko asmoz".

Oinarri garrantzitsu horren gainean bermaturik lan bikaina burutu du *Behatokiak* azken sei hilabeteetan eta horren emaitza da harrotasunez eta itxaropenez Euskal Herri osoari ez ezik nazioarteari ere aurkezten zaiona.

Kontseilua sinetsirik dago garrantzi handiko bitartekoa jarri duela abian *Behatokia* sortzean eta urtean-urtean burutuko duen lan hori mugarri izango dela euskaldunon hizkuntz

eskubideak errespetarazteari dagokionez, eta, halaber, hain garrantzi handiko gaien gizarte osoa sentiberatzeko tresna ezin hobe gertatuko dela bere jarduerari buruzko urteroko Txosten hau.

Hain epe laburrean bideratu behar izan diren 93 espediente horiek argi eta garbi erakusten dute *Hizkuntz Eskubideen Behatokia* garai onean eta premia nabari bat asetzera etorri dela. Beraz, Kontseiluak zorionak ematen dizkio *Behatokiari* hain lehen urrats bikaina eman duelako eta etorkizunean arrakasta berarekin lanean jarrai dezan opa dio euskaldunon hizkuntz eskubideak erabat errespetatuak eta beteak ikusi arte.

Xabier Mendiguren Bereziartu
Hizkuntz Eskubideen Behatokiko lehendakaria

AURKIBIDEA

1. *Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren sorrera eta jardunbideak*

- 1.1. Sorrera, xedea eta lan ildoak
- 1.2. Hizkuntz eskubideak eta haiek errespetatzearen aldeko jardunbideak
- 1.3. Euskararen telefonoa zerbitzua eta haren metodologia

2. Jasotako datuak

3. Datuen azterketa

- 3.1. Datuak irakurtzeko irizpideak
- 3.2. Auzitegiratzeak
- 3.3. Herritarrek helarazitako kexak
 - 3.3.1. Azterketa kualitatiborako adierazleak
 - 3.3.2. Alorkako azterketa kualitatiboa
 - Espainiako Estatuko administrazioa
 - Eusko Jaurlaritza eta haren erakunde autonomiadunak
 - Nafarroako Gobernua
 - Udalak
 - Herrialdeko agintaritzak
 - Frantziako Estatuko administrazioa

4. Ondorio nagusiak

5. *Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren ekarpenaren balorazio orokorra*

Eranskina: Bideratutako espedienteen sinopsia

1. Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren sorrera eta jardunbideak

1.1 Sorrera, xedea eta lan ildoak

Hizkuntz Eskubideen Behatokia fundazioa 2001eko ekainean sortu zen Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak sustatuta. *Behatokia* Euskal Herriko herritarren hizkuntz eskubideez arduratzen da eta eskubide horiek Euskal Herri osoan, arlo publikoan zein pribatuan, bermatzera zuzentzen du bere jardura.

Euskal Herriko herritarren hizkuntz eskubideak errespetaraztea xede duela, *Behatokiak* neutralitatez eta Kontseilua ez den beste edozein erakunde publiko edo pribaturen mendekotasunik gabe betetzen du bere lana.

Euskal Herrian, hizkuntza dela eta, ez dago herritar guztientzat aukera berdintasunik. Euskarak, Euskal Herriko berezko hizkuntzak, ez du *status* ofizialik Euskal Herri osoan eta euskal hiztunek egunero dituzte ukatuak beren hizkuntz eskubideak, eremu publiko zein pribatuan. Horren aurrean *Behatokiak*:

1. Euskal hiztunen hizkuntz eskubideak babestu eta defendatu ez ezik, urratzen direnean haien urratu izana salatu ere egiten du.
2. Euskal Herrian euskaraz mintzatzeko, administrazioari zuzendu eta administratibotik zerbitzuak hartzeko (osasuna, hezkuntza, justizia, informazioa zein beste edozein zerbitzu), bai eta orokorrean gizarteak eskaintzen dituen zerbitzuez euskaraz baliatzeko euskal hiztunek dituzten aukerak bermatzea du xede.

1.2 Hizkuntz eskubideak eta haiek errespetatzearen aldeko jardunbideak

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak hizkuntz eskubideen aldeko lana egiten du. Hizkuntz eskubideak herrien eta gizabanakoen berezko eta oinarritzko eskubide gisa hartzen ditu, hots, bertako hizkuntza erabili eta gizarte alor guztietan garatzeko herritar eta herri guztiek duten berezko eskubidea.

Eskubide hori ez dago tokian-tokian indarrean dagoen hizkuntz legediari lotuta. Euskal hiztunen hizkuntz eskubideak ez daude Euskal Herrian indarreango lege murriztaileen edo lege ezaren baitan. Euskaldunek, munduko beste edozein hiztun herrik bezala, dituzten hizkuntz eskubideak giza berdintasunezko irizpideetan eta oinarritzko giza eskubideen printzipioetan kokatzen ditu *Behatokiak*, eta horren arabera, tokian-tokian indarrean dagoen legeak ez aitortuta ere, euskaldunak eskubide horien jabe dira eta horiek galdegitea zuzeneko aldarrikapena dute.

Ez da *Hizkuntz Eskubideen Behatokia* izan 'hizkuntz eskubidea' kontzeptuaren adiera hori proposatu eta defendatzen lehendabizikoa, ez eta bakarra ere. 1996an Bartzelonan *PEN Club International* eta CIEMEN (*Centre Internacional Escarré per a les Minories Ètniques i les Nacions*) erakundeek sustatu eta UNESCOk berak babesturik antolatu zen Hizkuntz Eskubideei buruzko Mundu Mailako Biltzarrean *Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala* onartu zen. Deklarazio unibertsal horrek printzipio bera hartzen du abiapuntutzat, bere hitzaurrean azaldu bezala, 'hizkuntz desberdintasunaren marko

politikoa, bizikidetzan eta elkarren errespetu eta onuran' oinarritzeko asmoz :

'5. artikulua. Deklarazio honen funtsean dago printzipio bat zeinaren arabera hizkuntz komunitate guztien eskubideak berdinak diren, kontuan izan gabe bere kontsiderazio juridiko edo politikoa den hizkuntza ofizialarena, erregionalarena edo minoritarioarena (...)'

'Hizkuntz eskubide' kontzeptuaren oinarritzeko erreferentzia definizio baten beharra agerian gelditzen da estatuan-estatuan indarrean dauden hizkuntz legeak edo hizkuntz aniztasunaren aitzinean administrazioek dituzten jarrerak zer ezberdinak diren ikusita. Izan ere, euskararen lurraldeetan, Euskal Herrian, inon gutxi bezain larria da aipatu bateratasun falta. Euskaldunek haien hizkuntzaren *statusa* bost erregimen juridiko ezberdinen pean dute: ofizialtasuna gaztelaniarekin batera Euskal Autonomia Erkidegoan, hiru hizkuntz eremu Nafarroako Foru Komunitatean eta inolako lege aitortpenik eza Frantzia Estatuaren barneko euskal hiru herrialdeetan.

'Hizkuntz eskubide' kontzeptua indarrean dagoen legeari lotuz gero, Euskal Herriko hizkuntz eskubideen egoeraren azterketarako oinarritzeko arazo metodologiko handiak, bai eta etikoak ere izango genituzke. Hizkuntzaren *statusaren* araberako euskal hiztun bost kategoria bereizi beharko genituzke, eta hori eginda, herritarrekin bereizkeriaz jokatzeko duen eredu soziopolitikoa birsortu eta legitimatuko genuke.

Haatik, hizkuntz eskubideen definizioa indarrean dauden legeetatik aldendu eta giza berdintasunezko irizpideen eta oinarritzeko giza eskubideen printzipioen alorrera eramanda, bateratasun eta koherentzia metodologikoa lortzeaz gainera,

azterketa honek mundu osoko hiztun herrien arteko berdintasun eta ekitate eredu baten beharra agerian uzteko ekarpena egin nahi du.

Behatokiak darabilen oinarrizko kontzeptuaren adiera argituta, ikus ditzagun orain bere xedea erdiesteko jorratzen dituen jardunbide nagusiak:

- Hizkuntz eskubideen betetze eta urratzearen gaineko errealitatea modu objektiboan hartu: datu zehatzak bildu.
- Hizkuntz eskubideen urraketak konpontzen eragiteko asmoz, erakunde publiko zein pribatuen aurrean agertu eta eraginkor jokatu herritar euskaldunak gizarteak eskaintzen dien zerbitzuez beren hizkuntzaz balia ahal izan daitezen.
- Euskal Herrian hizkuntz eskubideak zertan diren azaltzeko, urtean bildutako datuak eta bideratutako jardunbideak txosten batean agertu, balorazio jurilinguistikoa eginda eta eskubideen urratze egoera gizarte alorka aztertuta.
- Urteko txostena euskal gizarteari, Euskal Herriko administrazioei, Espainiako eta Frantziako estatuei eta nazioarteko erakundeei aurkeztu, euskal hiztunentzako hizkuntz bereizkeriaren berri eman, egoera gizarteratu eta eskubide horiek errespetatu daitezen presioak jorratzeko.
- Hizkuntz eskubideen edukiak zabaldu, ezagutzera eman eta gizartearen horien inguruko hausnarketa sustatu.

- Orain arteko gizarte joera edo inertziatik itzuri eta hizkuntz eskubideen gutxiespen sozialaren aitzinean, herritar euskaldunak kontzientziatu euskararen presentzia soziala izan dadin euskaldun denon eskakizun eta premia, eta herritar erdaldunak eta erdal gizarte eragileak sentiberatu hizkuntz eskubideen berezko eta oinarrizko izaeraz jabe daitezen.
- Hitzun herriaren trinkotzea sustatu. Euskarazko eskaera soziala areagotzea eta egituratzea xede duten ekimenak babestu, lagundu eta sustatu; euskal hitzun herriak dagozkion eskubideak bereganatzeko euskarazko eskaera soziala berretu behar baitu. *Behatokiak* euskal hitzun herriaren egituratze, barne indartze eta kontzientziatze prozesua lagundu eta horretan erreferentzia izan nahi du.
- Hizkuntz eskubideak zaindu eta euskara kanpoko zein barneko zerbitzuetarako erabiltzen eredugarriak diren erakunde publiko zein pribatuak positiboki nabarmendu.

1.3 Euskararen telefonoa zerbitzua eta haren metodologia

Behatokia, hizkuntz eskubideen urratze egoera modu objektiboan neurtu eta hizkuntz eskubideen urraketari konponbidea emateko tresna zuzen eta eraginkorraz baliatzen da: Euskararen telefonoa zerbitzuaz.

Euskal Herriko edozein herritarren eta elkarteren eskura jarri du *Behatokiak* Euskararen telefonoa (telefonoz ez ezik,

webgunez eta posta arruntez ere), eta horren bidez, hizkuntz eskubideen defentsan gizartearen inplikazioa sustatu nahi du.

Hiru motako deiak bideratzen ditu Euskararen telefonoak: (1) Kexa egiteko deiak, euskara erabiltzeko herritarrek duten eskubidea ez bazaie errespetatu, ukatu bazaie edo euskara erabiltzeagatik kaltetuak izan badira; (2) Argibideak eskatzeko deiak, hizkuntz eskubideen inguruko aholkularitza juridikoa hartzeko, eta (3) txalotzeko deiak, euskaldunon hizkuntz eskubideak bereziki ongi zaintzen dituzten erakunde publiko zein pribatuen jokabide eredugarria zoriondu nahi izanez gero.

Zerbitzu honen bidez, *Behatokiak* herritarren deiak modu sistemático batez biltzen ditu. Kexei dagokiela, datu guztiak hartzen ditu: kexaren arrazoia izan den gertaera ahal den xehekien azalduta, dokumentazio osagarria ahal den osoena eta kexa egilearen datuak, nahiz hauek konfidentzialtasun osoz babestu eta kexak bideratzean edo informazioa plazaratzean ez agertu.

Behatokiak espedientea irekitzen dio kasu (aholku eskaera, kexa edo txalotzeko dei) bakoitzari, erregistro zenbakia esleitzen dio (espediente zenbakia/urtea, 1/2001 adibidez, urteko lehen kasurako) eta bere artxibategian gordetzen du.

Espedienteak zabaldua, *Behatokiak* sailkatu egiten ditu. Espedienteen sailkapenerako hiru irizpide hartzen ditu kontuan *Behatokiak*: eremuak (publikoa/pribatua), kexaren izaera (soilik eskubide urraketa, edota lege urraketa ere izan denentz) eta larritasuna (zer kalte ondorio ekarri duen). Edozein kexa delarik ere, luzeen jota, 30 eguneko epean ekiten zaio bideratzeari eta , kexaren arrazoia izan den gertaera zuzentzea xede duela, kexa

guztiak bideratzen ditu erakunde publiko eta pribatuen aurrean eta, beharrezkoa denean, bide judizialera ere jotzea du.

Bideratzean, batetik, kexa zuzendu zaion erakundearen arduradun nagusiarikexaren jakinarazpen idatzia bidaltzen zaio; eta bestetik, kexa jarri duen herritar edo elkarteari kexak izanen duen prozeduraren berri ematen zaio idatziz.

Euskararen telefonoa zerbitzuaren bidez herritarrek helarazten dituzten kexen eraginez ez ezik, *Hizkuntz Eskubideen Behatokiak* hizkuntz eskubideen urratze egoeraren gainean egiten duen diagnosiak ere bide ematen dio urraketan aitzinean agertu eta salatzeko.

Halakorik gertatu da, adibidez, Nafarroan: Nafarroako Gobernua herritar euskaldunen kontra minorizazio instituzional neurrigabea burutzen ari baita. Nafarroan indarrean dagoen legea bera urratzen du, bai eta berdintasunean oinarritu beharreko eskubide zibilen aplikazioa ere. Hori horrela, *Hizkuntz Eskubideen Behatokiak*, eragile sozialak lagun, bide judizialari ekin dio irizpide diskriminatzaileak oinarri hartuta Nafarroako Gobernuak indarrean jarritako dekretu, ebazpen eta deialdiren kontra. 2001ean *Behatokiak* zortzi auzitegiratze aurkeztu ditu.

2. Jasotako datuak

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak 2001eko ekainean sortu zen eta Euskararen telefonoa zerbitzuaren aurkezpen publikoa abenduan egin zuen.

2001eko ekainetik urtea bukatu bitartean, honako hauek izan dira *Behatokiak* irekitako espedienteak:

- 8 Auzitegiratze
- 6 aholku eskaera
- 69 Kexa
- 3 nabarmendu positibo
- 5 espediente kexa izaera gabe
- 2 espediente osatzeko ezeren faltan

Osotara: 93 Espediente

Hurrengo tauletan datuak modu eskematikoz emanda daude. 1. taulan kexak alorka antolatuta agertzen dira. 2. taulan espediente bakoitzak bere kodea du ondoan, bideratutako espedienteen sinopsian¹ kasu bakoitzaren berri zehatza bilatu ahal izateko.

¹ Zabalduko espedienteen sinopsia eranskinean dago.

EREMU PUBLIKOA			
Auzitegiratzeak	Nafarroako Gobernua	8	8
Espainiako Estatu Administrazioa	Polizia Nazionala	4	
	Instituto Nacional de Empleo - INEM	1	
	Instituto Nacional de Estadística - INE	2	
	Instituto Nacional de la Seguridad Social - INSS	1	
	Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia	1	
	Presidentzia	1	
	Justizia Ministerioa	1	11
Espainiako Estatu erakunde autonomiadunak	RENFE	1	
	Posta eta telegrafoak	1	2
Eusko Jaurlaritza	Osasun Saila	3	
	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila	4	
	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	1	
	Euskal Herriko Unibertsitatea - UPV	1	
	Lehendakaritza	1	
	Herrizaingo Saila	1	11
	Eusko jaurlaritzako erakunde autonomiadunak	Euskal Irrati Telebista (EITB)	2
Industria Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua (SPRI)		1	
Eusko Tren		3	6
Arabako Foru aldundia	Diputatu Nagusia	1	
	Arabako Biltzar Nagusiak	1	2
Bizkaiko Foru Aldundia	Ahaldun Nagusia	1	
	Gizartekintza Saila	1	2
Nafarroako Gobernua	Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	2	
	Hezkuntza eta Kultura Departamentua	3	
	RTVE – Nafarroako Aholku Kontseilua	1	
	Kirol eta Gazteria Nafarroako Institutua	1	7
Udalak	Gasteiz	5	
	Barrundia	1	
	Donostia	1	
	Tolosa	1	
	Barakaldo	1	
	Getxo	1	
	Sestao	1	
	Sopelana	1	
	Iruñea	3	15
Bestelakoak	Udalbiltza	1	1
Frantziako Estatu administrazioa	La Poste	1	1
Eremu publikoko kexa bideratuak osotara:			66

EREMU PRIBATUA

Banketxeak, asegurueteak,...	1	1	
Merkataritza kate handiak	3	3	
Ostalaritza	3	3	
Bestelakoak	4	4	
Eremu pribatuko kexa bideratuak osotara:			11

EREMU PUBLIKOA		
Auzitegiratzeak	Nafarroako Gobernua Nafarroako Gobernua Nafarroako Gobernua Nafarroako Gobernua Nafarroako Gobernua Nafarroako Gobernua Nafarroako Gobernua Nafarroako Gobernua	19/2001 20/2001 21/2001 22/2001 23/2001 24/2001 26/2001 28/2001
Espainiako Estatuko Administrazioa	Espainiako Polizia Nazionala Espainiako Polizia Nazionala Espainiako Polizia Nazionala Espainiako Polizia Nazionala INEM INE INE INSS Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia Presidentzia Justizia Ministerioa	1/2001 11/2001 14/2001 36/2001 3/2001 5/2001 33/2001 31/2001 67/2001 69/2001 41/2001
Estatuko erakunde autonomiadunak	RENFE Posta eta Telegrafoak ♦	74/2001 76/2001
Eusko Jaurlaritza	Osasun Saila Osasun Saila Osasun Saila Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila Euskal Herriko Unibertsitatea- UPV Lehendakaritza Herrizaingo Saila	10/2001 13/2001 93/2001 37/2001 40/2001 42/2001 62/2001 38/2001 48/2001 61/2001 84/2001
EAEko erakunde autonomiadunak	Euskal Irrati Telebista (EITB) Euskal Irrati Telebista (EITB) ♦ Industria Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua Eusko Tren Eusko Tren Eusko Tren	7/2001 45/2001 53/2001 71/2001 72/2001 82/2001
Arabako Foru Aldundia	Diputatu nagusia Arabako Biltzar Nagusiak	2/2001 63/2001
Bizkaiko Foru Aldundia	Ahaldun nagusia Gizartekintza saila	54/2001 55/2001
Nafarroako Gobernua	Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua Hezkuntza eta Kultura Departamentua Hezkuntza eta Kultura Departamentua Hezkuntza eta Kultura Departamentua RTVE- Nafarroako Aholku Kontseilua Kirol eta Gazteria Nafarroako Institutua Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	50/2001 56/2001 57/2001 25/2001 43/2001 88/2001 91/2001
Udalak	Gasteizko udala Gasteizko udala Gasteizko udala Gasteizko udala Gasteizko udala Barrundiako udala Donostiako udala Tolosako udala Barakaldoko udala Getxoko udala Sestaoko udala Sopelanako udala Iruñeko udala Iruñeko udala Iruñeko udala	32/2001 51/2001 52/2001 89/2001 90/2001 83/2001 39/2001 8/2001 15/2001 17/2001 18/2001 9/2001 27/2001 65/2001 66/2001
Bestelakoak	Udalbiltza	70/2001
Frantzia Estat. ad.	La Poste	16/2001
Bideratzeko ezeren faltan	Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila Zientzia eta Teknologia Ministerioa	77/2001 4/2001
Galderak	Guardia Zibila INE INE INE Nafarroako Gobernua (Hezkuntza eta Kult. Dp.) Olaztiko udala	6/2001 12/2001 30/2001 49/2001 34/2001 35/2001

EREMU PRIVATUA	
Banketxeak, asegurueteak,...	73/2001
Merkataritza kate handiak	44/2001 86/2001 75/2001
Ostalaritza	68/2001 60/2001 47/2001
Bestelakoak	87/2001 92/2001 29/2001 64/2001
Nabarmendu positiboak	46/2001 59/2001 85/2001
Kexa izaera gabeak	58/2001 78/2001 79/2001 80/2001 81/2001

♦ *Corpusari lotutako kexak.*
(ikus 3.3.1 puntua)

3. Datuen azterketa

3.1 Datuak irakurtzeko irizpideak

Datuen azterketa xeheagoa egin aurretik, garrantzitsua da oso datu hauek behar bezala irakurtzeko *Behatokiak* darabiltzan irizpideak azaltzea:

- Jasotako kexek, gutxi-asko, ez dute Euskal Herriko hizkuntz eskubideen egoera guztiz azaltzen. Herritarrek *Behatokira* helarazitako kexa zehatzak dira, bai, baina ez dira salbuespenak. Normalean errealitatean egunerokoak diren jardunbideen adibide jakinak dira, herritarrek beraiek bizituak eta *Behatokira* helaraziak.
- Halere, datu horiek oinarri hartuta, bai azal daiteke zer egoera ematen duten aditzera eta zer kasu diren erreparatu beharrekoak (sistematikotasun zantzuak edo xehetasun larrigarriak dituztelako). Bestalde, esku-hartze zuzenak egiteko bide ere ematen dute.
- Kexetatik zuzenean ezer gutxi ondoriozta daiteke. Kexa egitearen inguruan dauden aldagaiak (gune soziolinguistikoa, herritarren hizkuntz kontzientzia, tipologia horretako hiztunek jo ohi duten erakundeak,...) oso kontuan hartu behar direlakoan gaude, eta emaitzak ezin dira orokortu.

Jakina da euskaldunen portzentaia altuko udalerrri batean aiseago dela herritarrek zerbitzuak euskaraz hartzeko aukerarik ez dutenean kexa egitea herri erdaldundu batean baino, areago oraindik hizkuntz kontzientzia altuko hiztunak badira. Bestalde, eremu

pribatuari dagokionez, euskal hiztunek jo ohi duten erakunde horiek izanen dira bereziki baloratuak. Paradoxikoki, eremu pribatuan, bildutako kexa batzuk dira, hain zuzen ere, orokorrean euskararen erabilera zaintzeko ahaleginak egin dituzten erakundeei zuzenduak. Horren arrazoiak izan daitezke, agian, euskaldunak erakunde horietara, euskara kontuan hartzen ez duten beste batzuetara baino maizago joaten direla, eta horiekin zorrotzagoak direla: erakunde horietan euskara erabiltzeko aukera itxaropen handiagoa dute herritarrek eta euskararen erabileran inplikazio handiagoa eskatzen diete erakundeei.

Faktore horiek guztiak kontuan hartu gabe erraz eror gaitzete kexen datuen interpretazio oker eta neurritz kanpokoan, eta bide okerretik eraman, bestela, oso informazio probetxugarria izan daitekeena.

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak herritarrek helarazitako kexak hizkuntz eskubideen egoeraren joera erakusgarri eta eskubide urratzeen beltzuneen salagarri gisa hartzen ditu. Beraz, datuen azterketa kuantitatiboa baino, irakurketa kualitatibo eta erlatibizatua hobesten du.

3.2 Auzitegiratzeak

Nafarroako Gobernuak, bai eta Nafarroako zenbait udalek ere (Iruñekoak, adibidez) herritar euskaldunei aitortutako eskubideak murrizteko politika eraman dute 2001ean².

² Murrizketa nagusiak honako dekretu eta aginduen bidez etorri dira:

Nafarroako lege atzerakada ikusita, *Hizkuntz Eskubideen Behatokiak* legez egindako eskubide murrizketa horiei bide judizialez sistematikoki erantzutea deliberatu zuen eta 2001ean zortzi auzitegiratze egin ditu Nafarroako Gobernuak, herritarrekin bereizkeriaz jokatzuz, hartutako erabaki administratiboen kontra.

Auzitegiratzeak prestatu eta aurkeztean *Hizkuntz Eskubideen Behatokia* Nafarroako gizarte eragile ugariekin (tokiko administrazio, elkarte, sindikatu eta abarrekin) aritu da lankidetzan.

Datuek agertu bezala, 2001. urtean Nafarroako Gobernuaren aurka zazpi gorako helegite jarri ditu *Behatokiak*. Helegite guztiak administrazio lanpostuen ingurukoak izan dira eta ia guztietan langileak beraiek izan dira sinatzaileak.

Nafarroako Gobernuaren aldetik ez da erantzunik izan, hortaz, derrigorrezko epeak igarotakoan, *Behatokiak* auzitegiko administrazioarekiko auzi helegiteen aretora jo du.

Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantillan zein lanpostu diren euskara jakin beharrekoak (Hezkuntza eta Kultura Departamentuko irakasleak kanpo direla) eta zer jakite maila behar duten ezarri duen 203/2001 Foru Dekretuaren kasuan, *Behatokiak* zuzenean jo zuen

-
- Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen **372/2000 Foru Dekretua**, abenduaren 11koa (2001eko urtarrilaren 5eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean, NAOean, argitara emana).
 - Euskararen erabilerrari buruzko araudia eremu mistoan aplikatzeko **Ekintza Plana**, 2001eko urtarrilaren 8koa (2001eko urtarrilaren 19ko NAOean).
 - Eremu euskaldunean euskara erabiltzeko arautegia aplikatzeko **Ekintza Plana**, 2001eko otsailaren 5ekoa (2001eko otsailaren 14ko NAOean).
 - Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantillan zein lanpostu diren euskara jakin beharrekoak (Hezkuntza eta Kultura Departamentuko irakasleak kanpo direla) eta zer jakite maila behar duten ezarri duen **203/2001 Foru Dekretua**, uztailaren 30ekoa (2001eko irailaren 10eko NAOean).

administrazioarekiko auzi helegiteen aretora helegitearen iragarpena egitera.

Gaur-gaurkoz, jarritako helegiteetako batek berak ere ez du epaia izan. Izan ere, *Behatokiaren* helegiteak baino lehen euskararen aldeko hainbat eragilek 372/2000 Foru Dekretuaren aurka jarritako helegiteen epaia ere ez da oraindik emana.

Bestalde, aipatu beharrekoa da *Hizkuntz Eskubideen Behatokia* sortu aurretik, beste zenbait eragilek (LAB sindikatuak eta Nafarroa Euskara Elkargoak, guk dakigula) foru agindu, dekretu eta abarren kontra egindako auzitegiratze andana. Horiek guztiak 2001 urtean egin direnez, *Behatokiak* urteko txostenean azaldu nahi izan ditu, Nafarroan gertatu den eskubide murrizketaren kontrako herri erreakzioaren erakusgarri argiak direlakoan³.

³ **Gorako helegiteak honako erabaki hauen kontra jarriak:**

- EBAZPENA, 2001eko apirilaren 23koa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko telekomunikazio ingeniari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena.
- 94/2001 Ebazpena, maiatzaren 16koa, Unibertsitate eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak emana, "Europako Batasunean gehien erabiltzen diren hizkuntzak (ingelesa, frantsesa eta alemana) Nafarroako Foru Komunitatean zenbaterik dakizkiten neurtzeko inkesta soziolinguistikoa", lehiaketa bidez kontratatzea xedatzen duena.
- EBAZPENA, 2001eko maiatzaren 21koa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko administrari laguntzaile izateko 51 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena.
- 114/2001 Ebazpena, maiatzaren 28koa, Unibertsitate eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak emana, Nafarroako interesa duten unibertsitateko hizkuntz ikerketak eta Unibertsitate eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak sustaturiko proiektuak egiteko laguntzen deialdia onesten duena.
- EBAZPENA, 2001eko maiatzaren 28koa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko enpresa zientzietako diplomadun izateko 7 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena.
- EBAZPENA, 2001eko maiatzaren 28koa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren

erakunde autonomoen zerbitzuko Administrazio Publikoko teknikari (Adar Ekonomikoa) izateko 3 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena.

- EBAZPENA, 2001eko ekainaren 4koa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko administrari izateko 9 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena.
- EBAZPENA, 2001eko ekainaren 4koa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko Administrazio Publikoko teknikari (Adar Juridikoa) izateko 2 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena.
- EBAZPENA, 2001eko ekainaren 11koa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko gizarte langile izateko 11 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena.
- EBAZPENA, 2001eko ekainaren 18koa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko A mailako goi mailako tituludun izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena.
- EBAZPENA, 2001eko ekainaren 18koa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko errepideetako zaindari izateko 7 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena.
- EBAZPENA, 2001eko abuztuaren 1ekoa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko biologo lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena.
- EBAZPENA, 2001eko abuztuaren 1ekoa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko nekazaritzako ingeniari tekniko izateko 4 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena.
- EBAZPENA, 2001eko abuztuaren 1ekoa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko atezain izateko lanpostu huts bat, D mailakoa, lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena.
- EBAZPENA, 2001eko abuztuaren 20koa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko siloburu lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena.
- EBAZPENA, 2001eko irailaren 3koa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko errepideetako laguntzaile tekniko izateko 6 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena.
- EBAZPENA, 2001eko irailaren 10ekoa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko nekazaritza ingeniari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena.
- EBAZPENA, 2001eko irailaren 10ekoa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren

erakunde autonomoen zerbitzuko herrilanteko ingeniari tekniko izateko 2 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena.

- EBAZPENA, 2001eko irailaren 10ekoa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko liburategiko laguntzaile izateko 9 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena.
- EBAZPENA, 2001eko irailaren 10ekoa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko oihangintzako ingeniari tekniko izateko 4 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena.
- EBAZPENA, 2001eko irailaren 10ekoa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko biltegiko urgazle-gidari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena.

Administrazioarekiko auzi helegiteak honako erabaki hauen kontra jarriak:

- 372/2000 Foru Dekretua, abenduaren 11koa, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duena.
- 2001eko urtarrilaren 8ko erabakia, Nafarroako Gobernuak hartua, "Euskararen erabilerari buruzko araudia eremu mistoan aplikatzeko Ekintza-plana onesten duena.
- 2001eko otsailaren 5eko Erabakia, Nafarroako Gobernuak hartua, Eremu euskaldunean euskara erabiltzeko arautegia aplikatzeko Ekintza Plana, onesten duena.
- 22/2001 Foru Agindua, otsailaren 9koa, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Kontseilariak emana, abuztuaren 12ko 130/1998 Foru Agindua aldatzen duena. Foru Agindu horrek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta haren erakunde autonomoetako lanpostuak betetzeko deialdietan aplikatu beharreko merezimenduen baremoak ezarri zituen.
- 139/2001, Foru Dekretua, ekainaren 4koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartu eta bertako lanpostuen betetzea arautzen duen azaroaren 22ko 274/1993 Dekretua aldatzen duena.
- 203/2001, Foru Dekretua, uztailaren 30ekoa. Foru Dekretu horrek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomien plantillako zein lanpostu diren euskara jakin beharrekoak (Hezkuntza eta Kultura Departamentuko irakasleenak kanpo direla) eta zer jakite maila behar duten ezartzen du, bai eta zehazten ere zein lanpostutan hartu behar den euskara jakitea beste batzuen arteko merezimendutzat.
- 2001eko ekitaldirako Berriozarko Udalaren plantilla organikoa aurtengo otsailaren 7ko bilkuran hasiera batez onetsita, jendaurreko epean alegaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko onetsita gelditu da.
- 94/2001 Ebazpena, maiatzaren 16koa, Unibertsitate eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak emana, "Europako Batasunean gehien erabiltzen diren hizkuntzak (ingelesa, frantsesa eta alemana) Nafarroako Foru Komunitatean zenbatek dakizkiten neurtzeko inkesta soziolinguistikoa", lehiaketa bidez kontratatzea xedatzen duena.
- 114/2001 Ebazpena, maiatzaren 28koa, Unibertsitate eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak emana, Nafarroako interesa duten unibertsitateko hizkuntz ikerketak eta Unibertsitate eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak sustaturiko proiektuak egiteko laguntzen deialdia onesten duena.

3.3 Herritarrek helarazitako kexak

3.3.1 Azterketa kualitatiborako adierazleak

Kexek oinarriko bereizketa bat dute: (1) euskararen *statusaren* gaineko kexak eta (2) euskararen *corpusaren* gaineko kexak.

Statusaren gaineko kexak herritarrek euskara erabili eta gizarte alor guzietan garatzeko duten eskubidea urratzeari dagozkio. *Corpusaren* gaineko kexak, berriz, euskararen, hizkuntzaren beraren erabilerari dagozkio, euskara ez zuzenaren, akatsak dituenaren edo hizkuntzaren duintasuna urratzen duen erabileraren kontrako kexak dira.

Oinarrizko bereizketa hori eginda eta sinopsian kexen nolakotasuna azalduta, puntu honetan kexa horien azterketa kualitatiboa sakonduko dugu. Balorazioa ondoko hiru adierazleen arabera dago eginda:

Iruñeko Udalaren kontra, Udal Ordenantzak urratzen direlakoan:

- Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurrean: zirkulazio zergaren ordainagiriaren kontrako gorako helegitea.
- Nafarroako Administrazioaren aurrean, *Casa Marceliano* errotulazioaren eta 'zamilanak izan ezik' bide-seinaleen kontrako gorako helegitea.
- Nafarroako Administrazioaren aurrean, Sanduzelaiko zenbait karrikaren errotuluen kontakorako gorako helegitea.

Iruñeko Udalaren aurrean:

- Iruñeko Udalaren Ingurugiro eta Osasun Alorra. Ingurumenari buruzko Ipuin lehiaketaren oinarrien kontrako Berraztertze Helegitea.
- Iruñeko urdinguneko parkimetroen kontrako Berraztertze Helegitea; hizkuntza hautaketan euskara hautatzeko aukera kendu dute eta.

(1) Izaera. Kexa guztien oinarrizko izaera 'hizkuntz eskubide urraketa' da. 1.2 puntuan azaldu bezala, *Hizkuntz Eskubideen Behatokiak* ez du eskubide hori indarrean dagoen legearen arabera hartzen. Kexa bat hizkuntz eskubide urraketa izan daiteke indarrean dagoen legea urratu gabe ere (Iparraldeko edo Nafarroako euskaldun jendearen egoeran gertatzen den bezala). Zenbait kasutan, gainera, herritarrek azaldu kexak lege babesa du eta beraz, kexaren bideraketan 'lege urraketa' izaerari heltzen zaio. Adierazle hau baliagarria zaigu, batez ere, hizkuntz *status* ofizialaren gauzatze eza probatzeko eta horretan administrazio publikoek beraiek duten ardura agerian uzteko.

(2) Puntueltasuna / sistematikotasuna. Adierazle hau neurtzeko bi indizeri erreparatuko diegu:

(i) Hizkuntzaren erabilerrari lotutako bat: hizkuntzaren erabilera idatzi eta ahozkoaren bermea. Hizkuntz eskubideak bermatzeko gaitasunak progresibitatea eskatzen duela onartuta, badira herritarrei zerbitzua emateko orduan erraz bermatzen ahal direnak —errotulazioa eta informazio idatzia, adibidez—. Beste eskubide batzuen bermeak, ordea —ahozko zerbitzua, adibidez—, oro har plangintza eta plantilla egokitzea eskatzen du. Indize honen arabera, erakunde batek bere errotulazioan edo herritarrei eman beharreko informazio idatzian euskararen erabilera ez badu bermatzen, horrek bide ematen du pentsatzera ahozko harremanetan ere ez dela bermatuta egongo. Bermatzeko errazena idatzizko zerbitzua bada, hori egiteko ere urratsik eman ez izanak euskararen erabilera sistematikoki ez dela kontuan hartzen ematen du aditzera.

(ii) Errepikakortasun indizea: indize hau hizkuntz eskubideen urraketa gertaera baten inguruko kexa asko biltzean oinarritzen da.

Bi indize horiei erreparatuta puntualtasuna/sistematikotasuna neurtzen dugu. Adierazle hau baliagarria zaigu erakundeen jarrera ezagutzeko eta hizkuntz eskubideen errespetatzeko progresibitatean ari diren erakundeak inobilismoa agertzen dutenetatik bereizteko.

(3) Larritasuna. Adierazle honek kexan xehetasun larrigarririk ote dagoen ematen du aditzera. Xehetasun larrigarria euskaraz erabiltzeko herritarrek duten eskubideaz baliatzeagatik edo ezin izanagatik kaltetuak izateari dago loturik: administrazio baten aurrean euskaraz egin eta herritarrak harrera txarra hartzen badu, edo zerbitzua ukatzen badiote, etab. Adierazle hori baliagarria zaigu hizkuntz eskubidea urratzearen ondorioa neurtzeko. Gehienetan, hizkuntz eskubideen urraketak beste oinarrizko eskubideen urraketa dakar. Euskaldun ia guztiak, maila batean edo bestean, elebidun izatea erabilia da hizkuntz eskubideen oinarrizko eta berezko izaera estaltzeko eta eskubide horien urratzeak arintzeko. Baina, hizkuntz eskubideen urratzea herritarrak jabe diren berezko eta oinarrizko eskubidea ez errespetatzeaz gain, batzuetan, eskubide batez baliatu ezinak kalte ondorio neurgarriak ditu, psikologikoak zein materialak. Horiek hartzen ditu kontuan larritasun adierazle honek.

3.3.2 Alorkako azterketa kualitatiboa

Alorkako azterketa kualitatiboa egiteko alor bakoitzean gutxienezko kexa kopurua egoteko baldintza ezarri behar izan dugu ezinbestez. Hori horrela, ondoko alor hauen gaineko azterketa kualitatiboa egitea izan dugu:

Espainiako Estatuko administrazioa

Kexa kopurua: 11

Izaera: kexa guzietan lege urraketa izaera dute.

Puntueltasuna / sistematikotasuna: Kexen arrazoiak euskararen erabilera idatzia agertzen da: errotulazioa gaztelania hutsean dagoelako, herritarrei ez zaielako informazioa euskaraz bidali edo herritarrek euskaraz idatzitako dokumentuak aurkeztu eta Estatuko administrazioak ez dizkielako onartu. Alor honetan hizkuntz eskubide urraketa sistematikoen zantzuak ageri dira.

Larritasuna: herritarrek tokiko hizkuntza ofizial batean aurkeztutako dokumentuak administrazio batek onartu ez izana larria da (herritarrei ez zaie zerbitzua ematen, tramite gehiago egitera edo berriz joatera behartzen dituzte,...). Bestalde, 01/2001 kexan, euskararen ahozko erabileraren inguruan, herritarrek azaldu bezala, Estatu administrazioaren funtzionarioaren harrera txarra agertu da, eta hori ere xehetasun larrigarria da.

Iruzkinga: Jasotako kexek Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean kokatutako Estatu Espainiarreko egitura juridiko administratiboak, hau da, administrazio zentral zein periferiko deiturikoei, euskal herritarren hizkuntz eskubideak ez dituztela bermatzen eta tokian tokiko koofizialtasun edo hizkuntz arauak nabarmenki urratzen dituztela ondorioztatzeko bide ematen dute.

Hori ez ezik, oro har Estatuko administrazioek Espainiako Estatuak *Erregioetako edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna* berrestean⁴ eginiko adierazpena aztertu eta kontuan edukita ('*Erregioetako edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Itunaren 2.1, 2.2 eta 3.1 artikulua*⁵, berrespen adierazpenen ukanbeharrei buruzkoei jarraikiz Espainiak eginiko Adierazpena'), adierazpen horretan jasotakoa bera ere ez duela betetzen agerian geratzen da.

Arloz arlo aztertuta, estatuko administrazioek euskarari buruzko araudia urratu ez ezik oinarrizko eskubide batzuk ere urratu dituela ikusi dugu. Bestalde, kasu batzuetan, ustezko delitu zantzua ere izan dezaketen jardunbideak aurkitu ditugu.

Orokorrean, Estatuko administrazioek herritarrekin dituzten harremanetan, ez idatzizkoetan ez eta —are gutxiago— ahozkoetan ere, ez dute euskara, bertako hizkuntza, kontuan izaten. Hori bereziki da nabaria Barne Ministeritzako funtzionarioen kasuan. Jasotako datuek erakutsi bezala:

⁴ Espainiak 1992ko azaroaren 5ean sinatu zuen *Erregioetako edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna*. Sinatze soilarekin estatuek ez dute konpromisorik hartzen, horretarako Ituna berrestea da beharrezkoa. Espainiako Estatuak 2001eko apirilaren 9an berretsi zuen Ituna, eta urte bereko abuztuaren lehenetik dago indarrean.

⁵ *Instrumento de ratificación de la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias, hecha en Estrasburgo el 5 de noviembre de 1992*. Espainiako *Boletín Oficial del Estado*, 222 z. kian., 2001eko irailaren 15ekoan argitaratua:

Artículo 2. Compromisos.

1. Cada parte se compromete a aplicar las disposiciones de la parte II al conjunto de las lenguas regionales o minoritarias habladas en su territorio, que respondan a las definiciones del artículo 1.

2. Por lo que se refiere a toda lengua indicada en el momento de la ratificación, aceptación o aprobación, de conformidad con el artículo 3, cada una de las Partes se compromete a aplicar un mínimo de treinta y cinco párrafos o apartados elegidos entre las disposiciones de la parte III de la presente Carta, de los cuales, al menos, tres deberán ser elegidos de cada uno de los artículos 8 y 12 y uno de cada uno de los artículos 9, 10, 11 y 13.

Artículo 3. Modalidades.

1. Cada Estado contratante deberá especificar en su Instrumento de ratificación, aceptación o aprobación cada lengua regional o minoritaria o cada lengua oficial menos difundida en el conjunto o en una parte de su territorio, a la que deberán aplicarse los párrafos elegidos de conformidad con el párrafo 2 del artículo 2.

- Dokumentazioa gaztelania hutsez bideratu ohi delako kexu agertu dira herritarrek.
- Ahozko harremanetan gaztelania da nagusi, herritarrek administrazioekin euskaraz jarduteko duten eskubidea urratzen da, eta gainera, jarrera nabarmen baztertzailerak izan dira zenbait kexetan (adibidez, 1/2001, 14/2001 eta 36/2001 zenbakidunetan).
- Hizkuntz eskubideak urratu ez ezik, Estatuko administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko hizkuntz araudia ere urratzen du.

Bestalde, norbanakoen oinarritzko giza eskubideen urraketa zenbait kasuk 1978ko Espainiako Konstituzioak berak aitortutako eskubideen urratzea dakar, adibidez: aske joan-etortzeko eskubidea, Konstituzioaren 19. artikuluan aitortua, 14/2001 zenbakia duen kexan dago urratuta, edo berdintasun eskubidea, Konstituzioaren 14. artikuluan jaso, 1/2001, 14/2001 edo 36/2001 zenbakiak dituzten kexetan dago urratuta.

Esan bezala, delitu zantzua ere izan dezaketen jardunbideak ageri dira, adibidez: 1/2001, 12/2001, 14/2001 eta 36/2001 zenbakia duten kexetan ustezko prebarikazio delituen zantzuak daude (10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa, 404. artikulua).

Zehazki aipatzearren, Espainiako Estatuko administrazioek, gutxienik, ondorengo arauok urratu dituzte jardunbide horietan:

Espainiako Konstituzioa, 1978ko abenduaren 6koa.

14. artikulua: Los españoles son iguales ante la ley, sin que pueda prevalecer discriminación alguna por razón de nacimiento raza sexo, religión opinión o cualquier otra condición o circunstancia personal o social.

19. artikulua: Los españoles tienen derecho a elegir libremente residencia y a circular por el territorio nacional.

Asimismo tienen derecho a entrar y salir libremente de España en los términos que la ley establezca. Este derecho no podrá ser limitado por motivos políticos o ideológicos.

10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera arauzkotzekoa:

4. artikulua: Euskal Herriko Autonomia Elkartean hizkuntzagatik inork bereizkeriarik izan ez dezan, Herri aginte sailek ardura izan eta behar daitezen neurriak hartuko dituzte.

5.2 artikulua: Euskal herritarrei honako funtsezko hizkuntza eskubide hauek aitortzen zaizkie:

a) Arduralaritzarekin eta Autonomia Elkartean kokatutako edozein ihardutze sail edo erakunderekin harremanak hitzez eta/edo idatziz euskaraz eta gaztelaniaz izateko eskubidea.

6. artikulua: Herritar guztiei autonomia elkarteko lur eremuan herri arduralaritzarekin izan ditzaten harremanetan euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eta bakoitzak aukera dezan hizkuntza ofizialean harrera egin dakioneko eskubide aitortzen zaie.

13 artikulua: Euskal Herriko Autonomia Elkarteko herri agintaritzak erabili beharreko iragarki edo itxura eredu ofizial guztiak bi hizkuntzetan egon beharko dute.

18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa:

2.1 artikulua: Gaztelania eta euskara Nafarroako hizkuntza berekiak dira eta, horren ondorioz, hiritar guztiek dute ezagutu eta erabiltzeko eskubidea.

3. artikulua: Botere publikoek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte hizkuntzagaratik hiritarrak gutxietsiak izan ez daitezen.

II. KAPITULUA. ERABILPEN OFIZIALA EREMU EUSKALDUNEAN

10.1 artikulua: Hiritar guztiek, Administrazio Publikoekiko harremanetan, euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eta hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea dute.

III. KAPITULUA. ERABILPENA EREMU MISTOAN.

17. artikulua: Hiritar guztiek euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea dute Administrazio Publikoei zuzentzeko.

Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

35. artikulua: Derecho de los ciudadanos- Los ciudadanos en sus relaciones con las administraciones públicas tienen los siguientes derechos:

d) a utilizar las lenguas oficiales en el territorio de su Comunidad Autónoma, de acuerdo con lo previsto en esta Ley y en el resto del ordenamiento jurídico.

36. artikulua: Lengua de los procedimientos 1.- La lengua de los procedimientos tramitados por la administración general del estado será el castellano. No obstante lo anterior los interesados que se dirijan a los órganos de la administración general del estado con sede en el territorio de una comunidad autónoma podrán utilizar también la lengua que sea oficial en ella.

Erregioetako edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna, 1992:

10. artikulua. Autoridades administrativas y servicios públicos.

1. En las circunscripciones de las autoridades administrativas del Estado en las que resida un número de hablantes de lenguas regionales o minoritarias que justifique las medidas que figuran a continuación, y según la situación de cada lengua, las Partes, en la medida en que sea razonablemente posible, se comprometen a:

a) i) velar por que dichas autoridades administrativas empleen las lenguas regionales o minoritarias.

4.- Con el fin de aplicar las disposiciones de los párrafos 1, 2 y 3 que hayan aceptado, las Partes se comprometen a adoptar una o varias de las siguientes medidas:

- a) la traducción o la interpretación eventualmente solicitadas;
- b) el reclutamiento y, en su caso, la formación de funcionarios y otros empleados públicos en número suficiente;
- c) la aceptación, en la medida de lo posible, de las solicitudes de los empleados públicos que conozcan una lengua regional o minoritaria para que se les destine al territorio en que se habla dicha lengua.

10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa

404. artikulua: Agintari edo funtzionario publikoak, zuzen jarduten ez duela jakinda, administrazioko gai batean nahierarako ebazpena ematen badu, orduan, horri enplegu edo kargu publikoan aritzeko desgaitasuna berezia ezarriko zaio, zazpi urtetik hamar artekoa.

Eusko Jaurlaritza eta haren erakunde autonomiadunak

Kexa kopurua: 17

Izaera: kexa gehienek dute lege urraketa izaera.

Puntualtasuna / sistematikotasuna: kexa erdiak ahozko zerbitzua euskaraz hartu ezin izanaren ingurukoak dira eta beste batzuk euskararen erabilera idatziaren gainekoak dira. Justizia sailari dagozkio euskararen erabilera idatziaren gaineko kexak. Horiek sistematikotasun zantzuak agertzen dituzte.

Larritasuna: 38/2001 kexa, oinarritzko hezkuntza ikasketak Urruneko Oinarritzko Hezkuntzako Euskal Ikastexe publikoaren bidez euskaraz egin ezin izatearen ingurukoa, ondorio handiko hizkuntz eskubide urraketa da eta, beraz, larria.

Iruzkina: Eusko Jaurlaritzaren inguruan aurkeztutako kexetan Justizia Saila, Osasun Saila eta Eusko Tren erakunde autonomiaduna nabarmendu dira. Horretaz gain, Hezkuntza eta Herrizaingo sailei zuzendutako kexak dira, beraien larritasuna dela eta, bereziki aipagarriak direnak.

Justizia sailari zuzendutako kexei erreparatuz gero, bi motako kexa bereiztea dago: (1) batetik, epaitegien funtzionamenduari buruzko kexak daude. Horietan kexa hartzailea Justizia Administrazioa bera da. Egun Justizia Administrazioaren langileria Eusko Jaurlaritzara eskualdatuta badago ere, ezin ahortzi dugu langile horiek kidego estatalekoak izaten segitzen dutela. Bestalde, epaitegien eguneroko funtzionamenduan epailegoa da nagusi,

funtzionarioak epaileen menpe eta zerbitzura baitaude, eta funtzionarioek hizkuntz gaitasun egokia izanda ere, epaileena da, funtzionamenduari begira, guztiz erabakiorra dena. Beraz, kasu honetan egokiagoa litzateke kexak Justizia Administrazioa oro har zuzenduta daudela esatea (Justizia Administrazioa kontzeptuan, modu zabalean, horretan parte hartzen duten administrazio guztiak hartuta).

(2) Bestetik, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren eginkizuna bete-betean ukitzen duen kexa bat dago (40/2001). Elkarte bat inskribatzeko dokumentazioa euskaraz bidali eta Eusko Jaurlaritzatik dokumentazioa gaztelaniaz bidaltzea eskatu zitzaion elkarteari, bestela, izapidetzea luze joango zelakoan. Kasu horrek herritarrak euskaraz jarduteagatatik nolabaiteko kalteak har ditzakeela agerian utzi du.

Kexei dagokienez, nabarmen gelditzen da Justizia Administrazioan herritarren hizkuntz eskubideen urraketa aski sistematikoa dela⁶. Kexa batzuk gaztelania hutsez hartutako jakinarazpenen ingurukoak dira. Horiek ez ezik, ahozko harremanen ingurukoak ere badira. Bereziki aipatzekoa da 37/2001 zenbakidun kexa, galdaketa euskaraz gura izateagatik, itzultzailea noiz etorriko zain, epaitegian ordu bete baino gehiago eman behar izan zuen herritarraren kasua. Epaietan bertan euskaraz jarduteko eskubidea aldarrikatzearen inguruko kexa bat ere badago.

Oro har, nabarmen ageri da Justizia Administrazioan hizkuntz eskubideen arloan gertatzen den urraketa beste oinarrizko eskubide batzuen murrizketa dakarrela berarekin, adibidez: Oinarrizko Eskubide izaera duten Babes Judizial

Eraginkorrerako eskubidea (1978ko Espainiako Konstituzioaren 24. artikulua) edota Berdintasunerako eskubidea (Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua).

Osasun Sailari dagokionez ere, kexak bai idatzizko (gaztelania hutsezko dokumentazioa) zein ahozko harremanei buruzkoak dira. Hurrengo urteari begira egoerak txarrera egitea du lan eskeintza publikoko deialdia eginda baitago eta lanpostu horiek elebidunak izan beharrik ez da, euskara jakin beharra ez dute ezarrita (93/2001 kexa). Horrek, ezinbestean, hizkuntz eskubideen egiazko babesa, ahozko zein idatzizko harremanetan, benetan osatu eta eratzea ez bermatzera jotzen du, finean, euskara ez baitzaio lotzen lanpostu horietako zereginari.

Erakunde autonomiadunei dagokienez, nabarmena dira Eusko Trenari zuzendutako kexak sistematikotasun zantzuak baitituzte. Hiru jaso dira: horietatik bi idatzizko harremanei buruzko kexak izan dira (webgunea —82/2001 kexa— eta aldizkaria —71/2001 kexa— gaztelania hutsean egoteagatik), eta hirugarrena, ahozko harremanen ingurukoa, Eusko Trenak bere inkesta gaztelania hutsez egiteagatik.

Azkenik ondoko hauek ere aipagarriak dira:

Hezkuntza sailari buruzko kexa larri bat, 38/2001 kexa, Urruneko Oinarrizko Hezkuntzako Euskal Ikastetxearen bidez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikasketak gaztelaniaz baizik ez daitezkeelako egin. Horrek, euskaraz ikasteko eskubidea ez ezik, *10/82 Oinarrizko Legea, azaroaren 24ekoa, Euskararen Erabilera Arauzkotzezkoaren bigarren atalburuak (Euskeraren*

⁶ Ikusi Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren 'Adin txikikoen zigor epaitegiak eta hizkuntz

irakaskuntzango erabilpenari buruzkoak) aurreikusitakoa ere urratzen du.

Herrizaingoari buruzko kexak ere hizkuntz eskubideak urratzen diren beste eremu bat uzten du agerian. Kasu horretan bi ertzainek dokumentazioa eskatu eta bat berak ere euskara ez jakitea da kexaren arrazoia (84/2001 kexa).

Aurreko kasuetan honako lege urraketa hauek ditugu:

10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera arauzkotzekoa:

4. artikulua: Euskal Herriko Autonomia Elkartean hizkuntzagatik inork bereizkeriarik izan ez dezan, Herri aginte sailek ardura izan eta behar daitezen neurriak hartuko dituzte.

5.2. artikulua: Euskal Herritarrei honako funtsezko hizkuntza eskubide hauek aitortzen zaizkie:

a) Arduralaritzarekin eta Autonomia Elkartean kokatutako edozein ihardutze sail edo erakunderekin harremanak hitzez eta/edo idatziz euskaraz eta gaztelaniaz izateko eskubidea.

6. artikulua: Herritar guztiei autonomia elkarteko lur eremuan herri arduralaritzarekin izan ditzaten harremanetan euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eta bakoitzak aukera dezan hizkuntza ofizialean harrera egin dakioneko eskubide aitortzen zaie.

9. artikulua: 1.- Epailaritzarekingo harremanetan, herritar guztiek aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dute, inolako itzulpenik ezin eska daitekeela.

2.- Euskeraz aurkeztutako idazki eta agiriak eta bai epailaritza ihardunak ere, balio osozkoak eta eragite -indarrezkoak izango dira

13 artikulua: Euskal Herriko Autonomia Elkarteko herri agintaritzak erabili beharreko iragarki edo itxura eredu ofizial guztiak bi hizkuntzetan egon beharko dute.

15. artikulua: Ikasle guztiei hezkuntza maila ezberdinetan irakaskuntza euskeraz eta gaztelaniaz hartzeko eskubidea aitortzen zaie.

Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna, 1992:

8. artikulua. Enseñanza.

1. En materia de enseñanza y, por lo que se refiere al territorio en que se hablan dichas lenguas y según sea la situación de cada una de ellas, sin perjuicio de la enseñanza de la(s) lengua(s) oficial(es) del Estado, las Partes se comprometen a:

f) i) tomar disposiciones para que se impartan cursos de enseñanza para adultos o de educación permanente principal o totalmente en las lenguas regionales o minoritarias;

9. artikulua. Justicia

1. Las Partes se comprometen, por lo que se refiere a las circunscripciones de las autoridades judiciales en las que el número de personas que allí residan y hablen las lenguas regionales o minoritarias justifique las medidas específicas siguientes, según sea la situación de cada una de esas lenguas y a condición de que el Juez no considere que la utilización de las posibilidades ofrecidas por el presente párrafo constituye un obstáculo para la buena administración de la justicia:

a) en los procedimientos penales:

i) asegurar que los órganos jurisdiccionales, a solicitud de una de las Partes, lleven el procedimiento en las lenguas regionales o minoritarias;

10. artikulua. Autoridades administrativas y servicios públicos

2. En lo que se refiere a las autoridades locales y regionales en cuyos territorios resida un número de hablantes de lenguas regionales o minoritarias que justifique las medidas que figuran a continuación, las Partes se comprometen a permitir y/o fomentar:

a) el empleo de las lenguas regionales o minoritarias en el marco de la administración regional o local.

13. artikulua. Vida económica y social.

2. En materia de actividades económicas y sociales y en la medida en que las autoridades públicas tengan competencia, las Partes, en el territorio en que se hablen las lenguas regionales o minoritarias, y en cuanto sea razonablemente posible, se comprometen a:

c) velar por que los servicios como los hospitales, las residencias de la tercera edad, los asilos ofrezcan la posibilidad de recibir y atender en su lengua a los hablantes de una lengua regional o minoritaria que necesiten cuidados por razones de salud, edad o por otros motivos.

Nafarroako Gobernua

Kexa kopurua: 7

Izaera: Lege urraketa izaera dute.

Puntualtasuna / sistematikotasuna: kexa bat euskaraz ahoz erabili ezin izanaren ingurukoa da, gainerako guztiak, berriz, euskararen erabilera idatziaren gainekoak dira: liburutegi publikoen txartelak, Liburutegi Nagusiaren errotulazioa, gazteendako argitaratutako gida bat, lehendakaritzatik bertatik igorritako informazioa. Horietan sistematikotasun zantzuak ageri dira.

Larritasuna: 50/2001 kexan, Forzaingoarekin izandako harremanaren ingurukoan, herritarrak kaltetua ikusi du bere burua euskaraz egiteagatik. Herritarrak hizkuntz hautua egindakoan bere burua kaltetua ikustea xehetasun larrigarria da.

Iruzkina: Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion kexa gehienek ondoko erabaki administratiboei lotutako murrizketak izan dituzte oinarri:

- Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen 372/2000 Foru Dekretua, abenduaen 11koa (2001eko urtarrilaren 5eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean, NAOean, argitara emana).

- Euskararen erabilerari buruzko araudia eremu mistoan aplikatzeko Ekintza Plana, 2001eko urtarrilaren 8koa (2001eko urtarrilaren 19ko NAOean).
- Eremu euskaldunean euskara erabiltzeko arautegia aplikatzeko Ekintza Plana, 2001eko otsailaren 5koa (2001eko otsailaren 14ko NAOean).
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomoetako lanpostuak betetzeko deialdietan aplikatu beharreko merezimenduen baremoak ezarri zituen 22/2001 Foru Agindua, otsailaren 9koa, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak emana, abuztuaren 12ko 130/1998 Foru Agindua aldatzen duena.

Finean, kexa gehienek arrazoia izan diren jardunbideak 372/2000 Foru Dekretuaren eta horren garapenean emaniko araudiaren ondorioa dira, eta arau horiek herritarren hizkuntz eskubideen urratze garbia ekarri dituzte.

Bi mailakoak izan dira kexa horiek: (1) Batetik, lanpostu publikoen hornitzean euskararen ezagutzari ematen zaion balorazioaren ingurukoak eta, (2) bestetik, herritarrek administrazioarekin euskaraz jarduteko eta zerbitzuak euskaraz jasotzeko duten eskubidearen ingurukoak.

Kasu horietan, eta *Hizkuntz Eskubideen Behatokiak* Nafarroako Gobernuak indarrean jarritako araudi diskriminatzaile horri ezarritako helegiteek adierazten duten bezala, Nafarroako Gobernuaren aldetik hizkuntz eskubideen urratze sistematikoa gertatzen da. Urratze hori modu antolatua eta alde aurretik

erabakitako baten bidez egiten du Nafarroako Gobernuak. Ekinbide horiek, *13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarrako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzkoak*, bere 9. artikuluan ezarritakoaren⁷ eta horren garapen gisa emaniko *18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzko* horretan jasotakoaren aurka doaz.

Kontuan hartu behar dugu *18/1986 Foru Legeak, abenduaren 15ekoak, Euskarari buruzkoak* honako hauek ezarri zituela, besteak beste, bere ezinbesteko helburuak:

- a) Herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eraginkor bihurtzeko tresnak zehaztea.
- b) Euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz.

2. artikulua dioenez: 'Gaztelania eta euskara Nafarroako hizkuntza berekiak dira eta. Horren ondorioz, herritar guztiek dute jakin eta erabiltzeko eskubidea'.

Eta 3. artikulua ezarrita: 'Botere publikoek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte hizkuntzagatik hiritarrak gutxietsiak izan ez daitezen'.

Argi dago beraz, zein diren Euskararen Foru Legeak, Nafarroako berezko hizkuntzari dagokionez, ezartzen dituen helburu nagusiak, nahiz eta gero legeak berak egiten duen zonifikazioa guztiz kritikagarria izan nafarren bereizkeria eta eskubide urraketa ekarri baititu.

⁷ *13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarrako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzkoa*. 9. artikulua:

1.- Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala.

2.- Euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan.

Foru lege batek eskualde horiek zehaztu, euskararen erabilera ofiziala arautu eta Estatuko legeria orokorra abiapuntutzat harturik, hizkuntza horren irakaskuntza antolatuko du.

Halere, aipatu 372/2000 Foru Dekretuak, bere edukian, (helburuek besterik adierazi bazuten ere) Euskararen Foru Legearen xede horien kontra jotzen du zuzenean. 372/2000 Foru Dekretuari eta horren ondoren indarrean jarritako araudiari lotuz Euskararen Legeak jasotakoa betetzea ezinezkoa da, Euskararen Legeak ezarritako 'eremu mistoa' praktikan 'eremu ez euskalduna' bihurtu baitu, eta lege hori berak eremu mistorako zein euskaldunerako ezarritako xedapenak urratu baititu.

Bestalde, 372/2000 Foru Dekretuan jasotako xedapenek Espainiako estatuak sinatutako *Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Itunaren* atalak ez betetzea dakarte. Ildo horretatik, aipagarria da Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen zuten aurreko foru dekretuek (70/1994 eta 135/1994 zenbakidunek) bere Zioen Azalpenean Itunaren aipamen berezia egiten zutela eta aipamen hori 372/2000 Foru Dekretuan ez dela agertu ere egiten.

Kasu horietan, bedeen ondoko arauen ez betetzea dugu:

18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa:

2.1 artikulua: Gaztelania eta euskara Nafarroako hizkuntza berekiak dira eta, horren ondorioz, hiritar guztiek dute ezagutu eta erabiltzeko eskubidea.

3. artikulua: Botere publikoek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte hizkuntzagatik hiritarrak gutxietsiak izan ez daitezen.

II. KAPITULUA. ERABILPEN OFIZIALA EREMU EUSKALDUNEAN

10.1 artikulua: Hiritar guztiek, Administrazio Publikoekiko harremanetan, euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eta hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea dute.

III. KAPITULUA. ERABILPENA EREMU MISTOAN.

17. artikulua: Hiritar guztiek euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea dute Administrazio Publikoei zuzentzeko.

Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna, 1992:

10. artikulua. Autoridades administrativas y servicios públicos

2. En lo que se refiere a las autoridades locales y regionales en cuyos territorios resida un número de hablantes de lenguas regionales o minoritarias que justifique las medidas que figuran a continuación, las Partes se comprometen a permitir y/o fomentar:

a) el empleo de las lenguas regionales o minoritarias en el marco de la administración regional o local.

Udalak

Kexa kopurua: 15

Izaera: lege urraketa izaera dute.

Udalen kontra izandako kexetan bi multzo bereiz ditzakegu:

(1) Gasteiz, Barakaldo eta Iruñeko udalak.

Puntueltasuna / sistematikotasuna: kexa gehienak harreman idatziari dagozkio, idazkiak edo errotulazioa gaztelania hutsean, edo euskara ia kontuan hartu gabe daudelako. Horietan sistematikotasun zantzuak ageri dira.

Larritasuna: 32/2001 kexan, Gasteizko Udaltzaingorako oposizioaren hizkuntz eskakizun urriaren ingurukoan, ondorioa larria da langile publikoen hizkuntz gaitasunak herritar guztiei eman beharreko zerbitzua baldintzatzen baitu.

Bereziki nabarmentzekoak dira Iruñea eta Gasteizko udalei zuzendutako kexak. Kasu horietan herritarrak kexu agertu dira inprimaki, afitxa, kaleetako errotuluak eta abar gaztelania hutsez daudelako.

Iruñaren kasuan udalaren jarrera da aipatzekoa. Nafarroako Administrazio Auzitegiak emaniko azken epaiek ez legezkotzat jo dute Iruñeko udalak egiten duen euskararen erabilera udal ordenantzen kontra jotzen baitute. Hemendik aurrera, Iruñeko udalak jakinarazpen eta komunikazio publiko oro elebitan egitera behartu dute epaiek, euskararen udal ordenantzak aldatu bitartean bederen.

Gasteizko udalaren kasuan ere hizkuntz eskubideen urraketa nabaria da. Kexek agerian utzi dutenez, euskal hiztunen eskubideek eta Euskak Autonomia Erkidegoan legez jasotako euskararen ofizialtasunak ez dute behar bezalako begirunea hartzen.

(2) Getxo, Sestao, Tolosa eta Sopelanako udalak:

Puntueltasuna / sistematikotasuna: kexa gehienetan idatzizko informazioa gaztelania hutsean hartzeagatik dira jarriak, informazio hori inprimaki elebikoan emanda badago ere. Udalek gutxienezkoa (inprimaki elebikoa) ziurtatzen dute, baina herritarrek ez dute zerbitzua euskaraz hartzen, baliogarria den informazioa gaztelania hutsean baitago. Udalerri horietan elebitasun irudi instituzional hori eskaskotzat jotzen dute kexa jartzaileek eta beraien eskubideak betetzen ez direlakoan agertu dira kexu udal zerbitzua benetan euskaraz hartzeko.

Kasu hauetan herritarrek administrazioekin harremana euskaraz izateko duten eskubidea urratua gertatzen da, hain zuzen ere, inprimakia bete ohi duen funtzionarioaren euskara ezagutza faltagatik edo borondate ezagatik. Azkenik, atentzioa ematen duen beste datu bat: halako kexak hartu dituzten udal batzuk euskaldun portzentaia altuko udalerririk dira.

Kexa guzti horietan, gutxienik, ondorengo lege urratzeok nabarmen daitezke:

10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera arauzkotzekoa:

4. artikulua: Euskal Herriko Autonomia Elkartean hizkuntzagatik inork bereizkeriarik izan ez dezan, Herri aginte sailek ardura izan eta behar daitezen neurriak hartuko dituzte.

5.2 artikulua: Euskal Herritarrei honako funtsezko hizkuntza eskubide hauek aitortzen zaizkie:

- a) Arduralaritzarekin eta Autonomia Elkartean kokatutako edozein ihardutze sail edo erakunderekin harremanak hitzez eta/edo idatziz euskaraz eta gaztelaniaz izateko eskubidea.

6. artikulua: Herritar guztiei autonomia elkarteko lur eremuan herri arduralaritzarekin izan ditzaten harremanetan euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eta bakoitzak aukera dezan hizkuntza ofizialean harrera egin dakioneko eskubide aitortzen zaie.

13. artikulua: Euskal Herriko Autonomia Elkarteko herri agintaritzak erabili beharreko iragarki edo itxura eredu ofizial guztiak bi hizkuntzetan egon beharko dute.

Ordenantza Iruñeko Udalaren Esparruan Euskararen Erabilpena eta Sustapena Arautzen dituen, 1997ko irailaren 12koa.

8. artikulua. Iruñeko udalak gaztelania eta euskara erabiliko ditu hiritarrei orokorrean egiten dienean

Hartara, elebitan egingen dira:

- a) Bandoak, ediktuak, afitxak eta argibideetarako plakak.
- b) Zigiluak, tanpoiak, logotipoak, orriburuak eta gisakoak.
- c) Eraikin, karrika eta eremu publikoetako errotulazioa.
- d) Udal egoitza eta bulegoetako errotulazioa, Udalaren ibilgailuena, eta langileen arropa eta uniformeak.
- e) Interes turistikoa duten tokietako seinaleztapena, etzana nahiz zutikakoa izan, zerbitzuen kontrolekoa, eta bide seinaleak.

- f) Udalak hiritarren eskura jartzen dituen agiriak eta ereduak, administrazio prozedura guztiez argibideak eman beharrez.

9. 1. artikulua. Afitxetako elementu guztiak elebikoak izanen dira.

Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna, 1992:

10. artikulua. Autoridades administrativas y servicios públicos

2. En lo que se refiere a las autoridades locales y regionales en cuyos territorios resida un número de hablantes de lenguas regionales o minoritarias que justifique las medidas que figuran a continuación, las Partes se comprometen a permitir y/o fomentar:

- a) el empleo de las lenguas regionales o minoritarias en el marco de la administración regional o local.

**Herrialdeko agintaritzak: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta Batzar Orokorrak**

Herrialdeko botereei dagokienez bi herrialdeetako (Arabako eta Bizkaiko) administrazioen aurkako kexak jaso ditu *Behatokiak* (Nafarroako herrialdeko botereek izaera autonomikoa dutenez azterketa honetatik kanpo utzi dugu).

Kexa kopurua: 4

Izaera: Lege urraketa izaera dute.

Puntualtasuna / sistematikotasuna: Alor honetan jasotako kexa batzuk erabilera idatziari (erakunde horretatik hartutako gutunei, erakunde horien webguneko hizkuntz erabilerari) dagozkio. Beste batzuk, berriz, ahozkoari, erakunde horietan izandako harrera zerbitzuari.

Kexak, oro har, herritarrak administrazioarekin harremanak euskaraz burutzeko duen eskubidearen ingurukoak dira. Euskaraz egindako eskaera bati erdara hutsez erantzun izana (55/2001) bezalako jokabideak orokorrak ote diren jakiteko daturik ez dugu, baina hizkuntz eskubideen urraketa sistematikoaren gutxienezko zantzuak bederen, ageri dira.

Iruzkina: Kasu guztietan herrialdeko administrazio horiek egun indarrean dagoen legedia urratu dute:

10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera arauzkotzekoa:

4. artikulua: Euskal Herriko Autonomia Elkartean hizkuntzagatik inork bereizkeriarik izan ez dezan, Herri aginte sailek ardura izan eta behar daitezen neurriak hartuko dituzte.

5.2 artikulua: Euskal Herritarrei honako funtsezko hizkuntza eskubide hauek aitortzen zaizkie:

a) Arduralaritzarekin eta Autonomia Elkartean kokatutako edozein ihardutze sail edo erakunderekin harremanak hitzez eta/edo idatziz euskaraz eta gaztelaniaz izateko eskubidea.

6. artikulua: Herritar guztiei autonomia elkarteko lur eremuan herri arduralaritzarekin izan ditzaten harremanetan euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eta bakoitzak aukera dezan hizkuntza ofizialean harrera egin dakioneko eskubide aitortzen zaie.

13. artikulua: Euskal Herriko Autonomia Elkarteko herri agintaritzak erabili beharreko iragarki edo itxura eredu ofizial guztiak bi hizkuntzetan egon beharko dute.

Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna, 1992:

10. artikulua. Autoridades administrativas y servicios públicos

2. En lo que se refiere a las autoridades locales y regionales en cuyos territorios resida un número de hablantes de lenguas regionales o minoritarias que justifique las medidas que figuran a continuación, las Partes se comprometen a permitir y/o fomentar:

a) el empleo de las lenguas regionales o minoritarias en el marco de la administración regional o local.

Frantziako Estatu Administrazioa

Kexa kopurua: 1

Izaera: lege urraketa izaera du.

Puntualtasuna / sistematikotasuna: erabilera idatzari dagokio eta herri izenak euskaraz jartzeagatik (Angelu eta Urruña, Anglet eta Urrugne izenen orde, adibidez) ezarritako gainkostu hori beti aplikatzen da. Beraz, sistematikotasun zantzuak ageri dira.

Larritasuna: Frantziako *Le Postek*, bidalketa ugarietarako zerbitzua garestiago kobratzen du helbideak euskaraz idatziak badira. Euskara erabiltzeagatik kalte materiala izatea xehetasun larrigarria da oso.

Iruzkinga: Erabaki hori, euskaldunekiko diskriminazioa dela eta, auzitegietara eraman zuen Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundeak, AEK-k, baina 1999ko maiatzean Baionako auzitegiak baztertu egin zuen *Le Postek* kasu horretan diskriminazio delitua egin izana. Frantziako bide juridiko guziak agorturik (Baionako Auzitegia, Paueko Auzitegia eta Parisko Kasazio Gortea) AEK-k Nazio Batuek Genevan duten Giza Eskubideen Bulegora zuzendu du auzia. *Comité pour l'Élimination de la Discrimination Raciale* delakoaren presidenteari, hain zuzen ere, eman zaio horren berri. Afera erakunde horretan dagoela, AEK-k *Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren* esku utzi du kasuaren jarraipena.

Kasu honetan bertako herriak tokiko hizkuntzatan izendatu eta erabiltzeko eskubideaz baliatzeagatik gehiago ordainaraztea jarduera aski diskriminatzailea da.

Jardunbide horrek ondorengo araudion urraketa lekarke, besteak beste:

- *Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Naziorteko Itunaren 27. artikulua* (Frantziako estatuak erreserba bat ezarri zuen artikulua honen gainean, Frantziako estatuan gutxiengorik ez dela adieraziaz).
- *Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Itunaren 26. artikulua.*
- *Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoaren 11. Atala* (Frantziako estatuak sinatu gabea)
- *Erregio edo Gutxiengoaren Hizkuntzen Europako Itunaren 10.2 g) artikulua* (Frantziako estatuak sinatua baina berretsi gabea)
- Ildo horretatik ezin ahantzi dugu *Nazio Batuen Erakundeko Eskubide Sozial Ekonomiko eta Kulturalen Batzordeak* Frantziar estatuak *Eskubide Sozial Ekonomiko eta Kulturalen Naziorteko Itunaren* betetzeari buruz emandako txostena, 2001 urtekoa. Txosten horretan dionez, Frantziak hizkuntz gutxiengoaren inguruko nazioarteko gutxienezkoak ez ditu betetzen. Batzordearen arabera, Frantziako estatuak hiritarren berdintasuna legez ustez bermatu eta hiritar guztiak berdinak direla adierazteak ez du esan nahi 'gutxiengoek izateko eskubiderik ez dutenik'. Hori horrela, arestian aipaturiko arauak (*Erregio edo Gutxiengoaren Hizkuntzen Europako Ituna* zein *Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoa*) sina ditzala gomendatu dio Batzordeak Frantzia estatuari.

Eremu pribatua

Kexa kopurua: 11

Izaera: ez dute lege urraketa izaerarik.

Puntueltasuna / sistematikotasuna: erabilera idatziaren inguruko kexak dira, sistematikotasun zantzuak ageri dira.

Larritasuna: 68/2001 kexan euskaraz egiteagatik iseka egin zioten herritarrari eta hori xehetasun larrigarria da.

Iruzkina: Aipatu kasuetan ez da egungo zuzenbide positiboaren arabera lege urraketarik gertatu. Euskal Herrian, arlo ekonomikoa (zerbitzu pribatuen arloa), hizkuntz eskubideei dagokienez, arras gutxi araututa dago. Halaberean, nazioarteko araudiak ere ezer gutxi aipatzen du horri buruz (ikus horretarako *Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Itunaren* 13. artikulua). Aldiz, beste administrazio batzuek (Quebec, Katalunia eta Belgikak, adibidez) beren hizkuntz komunitateen eskubideak eremu pribatuan ere arauturik dituzte.

Halere, jasotako datuek agertu bezala, herritarren aldetik arlo pribatuaren inguruko kexak —zerbitzua euskaraz hartu ezin izateagatik— eta txalotze edo nabarmentze positiboak —erakunde pribatuek zerbitzua euskaraz emateagatik— adierazten dute eremu pribatu honekiko herritarrak sentibera direla horietan zerbitzua hartzeko aukera duten hizkuntzen inguruan. Beraz, Euskal Herrian, arlo ekonomikoan orokorrean, zerbitzuak euskaraz hartu ahal izateko eskubidea, kontsumitzaile gisa bertako hizkuntzan atenditua izateko eskubidea bermatua

izateko eskaera izan bada. Baina esan bezala, eskubide horiek egun ez daude oraindik garatuta.

4. Ondorio nagusiak

Urteko txostenak bildu dituen datuak aurkeztu ditugu, bai eta kualitatiboki aztertu eta juridikoki baloratu ere. Hizkuntz eskubideen urratze egoera orokortua ageri zaigu eta kuantitatiboki asko ez izanda ere, aski adierazgarriak izan dira *Hizkuntz Eskubideen Behatokiak* esku artean izan dituen datuak. Ondokoak dira txosten honek bildu dituen datu eta azterketen ondorio nagusiak:

- Euskal Herriko herrialde guztietan urratzen dira hizkuntz eskubideak, Iparraldean nola Hegoaldean.
- Euskal Herriko administrazio maila guztiek urratzen dituzte hizkuntz eskubideak: Estatu administrazioek – horiek sistematikoki egiten dute–, administrazio autonomikoek eta toki administrazioek.
- Hizkuntz eskubideak urratzea ez da soilik gizakien eta hizkuntz komunitateen arteko ekitatearen printzipio nagusia, *Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalak* oinarri duena eta *Behatokiak* bere egin duena, urratzea. Kasu gehien-gehienetan administrazioek beraiek onartutako eta beraien lurraldeetan indarrean dagoen hizkuntz legeria ere ez dute betetzen, legea urratzen dute: konstituzioak, estatu mailako prozedura administratiboko legeak, erkidegoetako hizkuntz legediak bai eta toki entitateetako ordenantzak ere.
- Kasu batzuetan hizkuntz eskubideaz gain oinarritzko eskubide batzuk ere urratzen zaizkie herritarrei: berdintasunez hartua izateko eskubidea,

informatuta egoteko eskubidea, aske joan-etortzeko eskubidea, etab. Bestalde, administrazioaren aldetik delitu zehatzen zantzuak dituzten kasuak ere aurkitu ditugu: bereizkeria, prebarikazioa, etab.

- Estatuz gaindiko araua ere, *Erregioetako edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Ituna*, Espainiako eta Frantziako estatuak sinatua, baina Espainiak bakarrik berretsia (2001eko apirilaren 9an berretsi zuen eta urte bereko abuztuaren lehenetik indarrean dago) urratzen da. Espainiak Ituna berrestean hartutako gutxienezko konpromisoak ez ditu betetzen.
- Nafarroa Europako kontraeredua da bertako hizkuntz gutxiengo baten babesari dagokiola. Nafarroako Gobernuak murrizketak egin ditu legez aitortuta zeuden hizkuntz eskubideetan eta eskubide horiek sistematikoki urratzen dizkie herritarrei.

5. **Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren ekarpenaren balorazio orokorra**

Urteko txostenak bildu dituen datuen gaineko azterketa juridiko, balorazio orokorra eta ondorio nagusien agerpena eginda, *Hizkuntz Eskubideen Behatokiak* burutu duen lanaren inguruan ere gogoeta egin du. Zer dakarkiokeen euskal gizarteari erakunde honek Euskal Herriko herritarren hizkuntz eskubideen alde egiten duen lanak, lan hori nolakoa den kontutan hartuta? Ondoko hiru ekarpenetan bildu dugu *Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren* jarduera:

'Hizkuntz eskubide' kontzeptua

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak euskararen herrialde historiko guztiak, Euskal Herri osoa hartzen du eremu. Bertako hizkuntza bost erregimen juridiko ezberdinen pean arauturik dago. Bost *status* ezberdin du euskarak bere herrialde historikoetan eta bost herritar kategoria bereizi beharko genituzke legez dagozkien hizkuntz eskubideen arabera.

Garbi da Euskal Herriko herritarrek euskara erabili eta gizarte alor guzietan garatzeko duten eskubidea ezin diogula indarrean dagoen legeari lotu. Herritarren arteko bereizketa legezko egiten duten legeetatik aldenduta, giza berdintasunezko irizpideetan eta giza eskubideen printzipioetan oinarritu dugu 'hizkuntz eskubide' kontzeptua, 1996an Bartzelonan onartu zuten *Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalari* lotuz.

Kontzeptu hau aski 'iraultzailea' izan daiteke Euskal Herrian, non gutxiagotasun eta menpekotasun legezkoak ezarri eta barnearazi duen egoeraren irakurketak 'naturalizatu' baitu

herritarren arteko bereizkeria, euskal hiztunei oinarritzko eskubideak ukatuz.

Oraindik orain legeari loturik hautematen dute euskaldun gehienek beraien hizkuntza erabiltzeko eskubidea, hartutako datuetan agertu bezala. Horrek eskubideen jabetzaren inguruan zalantza eta segurtasun falta dakarzkie herritarrei, euskara erabiltzeko eskubideez gabeturik egotearen sinista Euskal Herriko lurralde gehiengan.

Hizkuntz eskubideak Euskal Herriko herrialdeetan indarrean dauden hizkuntz legeen arabera aztertzeak bereizkeria eta oinarritzko eskubideen urraketa kasu anitz ez ikustea eta 'ikustezin' bihurtzea ekarriko luke. Herritarrekin bereizkeriaz jokaten duen eredu soziopolitikoa birsortu eta legitimatu beharrean, azterketa honek, euskal hiztun herriaren esperientziatik, mundu osoko hiztun herrien arteko berdintasuna eta ekitate eredu baten beharra eta gurea bezalako hizkuntz komunitate gutxiagotuen biziraupena bermatzen duen legezko babes eredu baten premia agerian uzteko ekarpena egin nahi du.

Euskal hiztunek beraien egoera hautematea

Euskal Herriko herritarren hizkuntz eskubideen egoera ezagutzeko ditugun datuak, gehienbat, herritarrek beraiak emanak dira. Horiek osatzen dute *Hizkuntz Eskubideen Behatokiak* herritarren hizkuntz eskubideen betetze eta urratzearen gainean egin duen diagnosi modukoa. Diagnosi horrek euskal hiztun herriak bere egoera hauteman dezan edo bere autopertzepziorako lagun diezaioke.

Hizkuntz eskubideen egoera, hots, hizkuntzaren *statusa* eta presentzia sozialaren egoera ezagutu eta horretaz jabetzea abiapuntua da hura aldatzearen aldeko urratsak emateko. Euskal hiztun herriak bere egoera hauteman behar du, bere buruaren pertzepzioa lortu behar du, autopertzepziorik gabe besteek (euskal hiztunak ez direnek eta euskararen beharra sentitzen ez dutenek) egiten duten diagnosis eta zabaltzen duten irakurketa hartu beharko baitu, eta horrek ez du Euskal Herriko herritarren eskubideen egoeraren hobetzea ekarriko. *Behatokiak* euskal hiztun herriak bere egoeraren hautemate berekia eta neurrikoa izan dezala bere ekarpena egin nahi du.

Hizkuntz eskubideak urratzearen kalte ondorioak

Euskaldun ia guztiak, maila batean edo bestean, elebidun izatea erabilia izan da, eta erabilia da egun, hizkuntz eskubideei berezko eta oinarrizko eskubide izaera ez aitortzeko, eta urratzen direnean urraketa arindu eta justifikatzeko, elebidun izateak nor bere tokiko hizkuntzaz egiteko eskubideari oinarria kenduko bailion.

Baina, hizkuntz eskubideen urratzeak, herritarrak jabe diren berezko eta oinarrizko eskubidea ez errespetatzeaz gain, batzuetan, kalte ondorio neurgarriak ditu. Izan ere, gutxiengo hizkuntza bat erabiltzea elebidunen kapritxo huts gisa hartzen dute hizkuntza handien hiztun eta haiekin interesak dituzten erakunde anitzek. *Hizkuntz Eskubideen Behatokia*, berriz, hizkuntz eskubideen urratzea, bere kalte ondorioak dituen eskubide baten urratze gisa agertzen saiatu da, eta kasu batzuetan, kalte psikologikoak zein materialak oso neurgarri eta agerikoak ekarri ditu. Bestalde, horiek kontuan hartuz, euskal hiztunen ezinegona eta sufrimendua, bai eta egoera aldatzeko egiten dituzten

ahaleginak ere egiaztatu eta agerian uzteko ekarpenak egin nahi izan ditu *Behatokiak*.



Eranskina:

Bideratutako espedienteen sinopsia

Espedientea:	Erakundea:
01/2001	POLIZIA NAZIONALAREN KOMISALDEGIA
Nori bidalia:	Probintzia komisarioa
	Arrazoia:
Pasaportea ateratzera joan eta euskarazko zerbitzurik jaso ez. Halaber, oso tratu eskasa jaso zuen: erdaraz hitz egin ezean, kalera joateko agindua jaso ere egin zuten.	

Espedientea:	Erakundea:
02/2001	ARABAKO FORU ALDUNDIA
Nori bidalia:	Arabako Diputatu Nagusia
	Arrazoia:
Arabako Foru Aldundiko webgunean sartu eta aldizkari ofizialari buruzko informazioa eskatzean, ez dago euskaraz hartzeko aukerarik. Bestalde, webgunean euskara bigarren mailako hizkuntza gisa agertzen da. Orria zabaltzean, gaztelaniazko bertsioa agertzen da eta euskara, ingelesarekin batera, aukera gisa.	

Espedientea:	Erakundea:
03/2001	INEM
Nori bidalia:	INEMeko probintzia zuzendaria
	Arrazoia:
INEMeko Errekaldeko bulegoan (Bilbo), txartel elebidunek akats ortografikoak agertzen zituzten. Aldatzeko eskatu zuen. Horren ostean, akatsa zuten txartelak kendu eta berriak ez dute jarri.	

Espedientea:	Erakundea:
04/2001	ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA MINISTERIOA
Nori bidalia:	
	Arrazoia:
Produktua euskaraz erregistratzea eragotzi diete, markei buruzko legeak xedatzen duenaren kontra.	

Espedientea:	Erakundea:
5/2001	INE
Nori bidalia:	Estatistika ordezkaria, Bizkaiko probintzia ordezkaritza
	Arrazoia:
Estatistika Institutu Nazionalaren Bizkaiko probintzia ordezkaritzak bidali dion dokumentazio osoa ez dago euskaraz eta, eskatua ere, administrazio horrek ez dio euskaraz igorri.	

Espedientea:	Erakundea:
7/2001	EITB
Nori bidalia:	EITBko zuzendari nagusia / ETBko zuzendari nagusia
	Arrazoia:
Irailaren 11n Estatu Batuen kontrako erasoaren egunean, hedabide guztiek gertakizun larri horren hedapena egin zuten. ETB 1ek ez zuen ohiko programazioa aldatu horren berri emateko.	

Espedientea:	Erakundea:
8/2001	TOLOSAKO UDALA
Nori bidalia:	Tolosako alkatea
	Arrazoia:
Tolosako udaltzain batek jarritako isunean -inprimaki elebikoan- salatutako ekintza gaztelania hutsean dago azalduta, eta euskaraz izendapena duen Tolosako kalea ere gaztelania hutsez idatzita dago.	

Espedientea:	Erakundea:
09/2001	SOPELANAKO UDALA
Nori bidalia:	Sopelanako alkatea
	Arrazoia:
Udalak zerga bilketarako erabili duen inprimakia elebikoa bada ere, idatzitako testu ugari gaztelania hutsez agertzen da.	

Espedientea:	Erakundea:
10/2001	OSAKIDETZA
Nori bidalia:	Osasun saileko Gipuzkoako Lurralde zuzendaria
	Arrazoiak:
Donostiako Antiguako osasun zentroak bideratutako osasun txartel berria ez da informazio osoa euskaraz agertzen eta euskaraz emandako informazioan akats gramatikala dago.	

Espedientea:	Erakundea:
11/2001	ESPAINIAKO POLIZIA NAZIONALA
Nori bidalia:	NAN eta pasaporte zerbitziburua Nafarroako Gobernuaren Unibertsitate eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiazen Hizkuntzaren Garapen, Programazio eta Ikerketa Zerbitziburua
	Arrazoiak:
Nafarroako herritarrei luzatzen zaizkien nortasun agirietan eta pasaporteetan ez da sistematikoki erabiltzen Nafarroako Parlamentuak 16/1989 Foru Dekretuaren bidez ezarritako izendegi edo toponimia ofiziala.	

Espedientea:	Erakundea:
12/2001	INE
Nori bidalia:	
	Arrazoiak:
Estatistika Institutu Nazionalaren Bizkaiko probintzia ordezkariak bidali dion dokumentazio osoa ez dago euskaraz eta, eskatua ere, administrazio horrek ez dio euskaraz igorri. Isuna jaso eta Madrilera deklaratzera joan behar izango du.	

Espedientea:	Erakundea:
13/2001	OSAKIDETZA – BEASAINGO OSASUN-ZENTROA
Nori bidalia:	Osasun-zentroko langileria burua
	Arrazoiak:
Beasaingo osasun-zentroak ez dio ahalbidetu harrera zerbitzua euskaraz izatea.	

Espedientea:	Erakundea:
14/2001	ESPAINIAKO POLIZIA NAZIONALA
Nori bidalia:	
	Arrazoiak:
Loiuko aireportuan hegazkina hartzeko zeudela, neskatila bat bertan geratu zen gurasoen baimena euskara hutsez zegoelako. Baimenak Ertzaintzaren oniritzia zuen. Gurasoak aireportuan bertan baziren ere, ez zioten neskatilari hegazkina hartzen.	

Espedientea:	Erakundea:
15/2001	BARAKALDOKO UDALA
Nori bidalia:	Barakaldoko alkatea
	Arrazoiak:
Udalak plazaratutako argitalpen askotan, <i>Barakaldo</i> aldizkaria, aurrekontuei buruzko biorrikoa, <i>Barakaldo antzokia</i> , <i>Inguralde...</i> euskararen presentzia hutsala edo oso baxua da.	

Espedientea:	Erakundea:
16/2001	LA POSTE – ESTATU FRANTSESA
Nori bidalia:	
	Arrazoiak:
Herrien izenak euskaraz jartzeagatik, ez zieten onartu posta zerbitzuak eskaintzen dituen beherapenez baliatzea.	

Espedientea:	Erakundea:
17/2001	GETXOKO UDALA
Nori bidalia:	Getxoko alkatea
	Arrazoiak:
Udalak salaketa baten jakinarazpenerako erabili duen inprimakia elebikoa bada ere, salaketaren gaia gaztelania hutsez agertzen da.	

Espedientea:	Erakundea:
18/2001	SESTAOKO UDALA
Nori bidalia:	Sestaoko alkatea
Arrazoa:	
Sestaoko udaleko langile batek jasotako nominaren inprimakia elebitan badago ere, barneko testu guztia gaztelania hutsez agertzen da.	

ESPED.	19/2001
NORK:	Administrazio publikoko langileek
NORI:	Nafarroako Gobernua
EDUKIA:	
2001eko maiatzaren 21eko Ebazpena. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko administrari laguntzaile izateko 51 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena.	
ARRAZOIA:	
Euskararen ezagutza ia ez da baloratu. Nafarroan inolako estatusik ez duten hizkuntzen ezagutza gehiago baloratu dute.	
GORAKO HELEGITEA:	
SARRERA-DATA:	2001-07-05
IRAUNGITZE-DATA:	2001-10-05
ERANTZUNA:	Isiltasun administratiboa.
ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI HELEGITEA	
Gorako helegitea jarritako langile batek botereak eman dizkio <i>Behatokiko</i> prokuradoreari. Dokumentazio guztia abokatu taldearen bulegoan dago. Sei hilabeteko epea dute administrazioarekiko auzi helegitea sartzeko.	

ESPED.	20/2001
NORK:	Administrazioko publikoko langileek
NORI:	Nafarroako Gobernua
EDUKIA:	
2001eko maiatzaren 28ko Ebazpena. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko Administrazio Publikoko teknikari (Adar Ekonomikoa) izateko 3 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena.	
ARRAZOIA	
Euskararen ezagutza ia ez da baloratu. Nafarroan inolako estatusik ez duten hizkuntzen ezagutza gehiago baloratu dute.	
GORAKO HELEGITEA:	
SARRERA-DATA:	2001-07-05
IRAUNGITZE-DATA:	2001-10-05
ERANTZUNA:	Isiltasun administratiboa.
ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI HELEGITEA	
Gorako helegitea jarritako langile batek botereak eman dizkio <i>Behatokiko</i> prokuradoreari. Dokumentazio guztia abokatu taldearen bulegoan dago. Sei hilabeteko epea dute administrazioarekiko auzi helegitea sartzeko.	

ESPED.	21/2001
NORK:	Administrazio publikoko langileek
NORI:	Nafarroako Gobernua
EDUKIA:	2001ko ekainaren 4ko Ebazpena. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko administrari izateko 9 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena.
ARRAZOIA:	Euskararen ezagutza ia ez da baloratu. Nafarroan inolako estatusik ez duten hizkuntzen ezagutza gehiago baloratu dute.
GORAKO HELEGITEA:	
SARRERA-DATA:	2001-07-05
IRAUNGITZE-DATA:	2001-10-05
ERANTZUNA:	Isiltasun administratiboa.
ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI HELEGITEA	
Gorako helegitea jarritako langile batek botereak eman dizkio <i>Behatokiko</i> prokuradoreari. Dokumentazio guztia abokatu taldearen bulegoan dago. Sei hilabeteko epea dute administrazioarekiko auzi helegitea sartzeko.	

ESPED.	22/2001
NORK:	Administrazio publikoko langileek
NORI:	Nafarroako Gobernua
EDUKIA:	2001ko maiatzaren 28o Ebazpena. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko enpresa zientzietako diplomadun izateko 7 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena.
ARRAZOIA:	Euskararen ezagutza ia ez da baloratu. Nafarroan inolako estatusik ez duten hizkuntzen ezagutza gehiago baloratu dute.
GORAKO HELEGITEA:	
SARRERA-DATA:	2001-07-05
IRAUNGITZE-DATA:	2001-10-05
ERANTZUNA:	Isiltasun administratiboa.
ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI HELEGITEA	
Gorako helegitea jarritako langile batek botereak eman dizkio <i>Behatokiko</i> prokuradoreari. Dokumentazio guztia abokatu taldearen bulegoan dago. Sei hilabeteko epea dute administrazioarekiko auzi helegitea sartzeko.	

ESPED.	23/2001
NORK:	Suhiltzaileen enpresa-komiteko gehiengoa: (ELA, LAB, ESK, CCOO , UGT)
NORI:	Nafarroako Gobernua
EDUKIA:	2001ko ekainaren 6ko 57/2001 Ebazpena. Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamenduko Partzuergoko suhiltzaile-kabo izateko 25 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena.
ARRAZOIA:	Euskararen ezagutza ia ez da baloratu. Nafarroan inolako estatusik ez duten hizkuntzen ezagutza gehiago baloratu dute.
GORAKO HELEGITEA:	
SARRERA-DATA:	2001-09-19
IRAUNGITZE-DATA:	2001-12-19
ERANTZUNA:	Isiltasun administratiboa.
ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI HELEGITEA	
Gorako helegitea jarritako langile batek botereak eman dizkio <i>Behatokiko</i> prokuradoreari. Dokumentazio guztia abokatu taldearen bulegoan dago. Sei hilabeteko epea dute administrazioarekiko auzi helegitea sartzeko.	

ESPED.	24/2001
NORK:	Suhiltzaileen enpresa-komiteko gehiengoa: (ELA, LAB, ESK, CCOO , UGT)
NORI:	Nafarroako Gobernua
EDUKIA:	2001ko abuztuaren 9ko 105/2001 Ebazpena. Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamenduko Partzuergoko suhiltzaile izateko 40 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena.
ARRAZOIA:	Euskararen ezagutza ia ez da baloratu. Nafarroan inolako estatusik ez duten hizkuntzen ezagutza gehiago baloratu dute.
GORAKO HELEGITEA:	
SARRERA-DATA:	2001-09-19
IRAUNGITZE-DATA:	2001-12-19
ERANTZUNA:	Isiltasun administratiboa.
ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI HELEGITEA	
Gorako helegitea jarritako langile batek botereak eman dizkio <i>Behatokiko</i> prokuradoreari. Dokumentazio guztia abokatu taldearen bulegoan dago. Sei hilabeteko epea dute administrazioarekiko auzi helegitea sartzeko.	

Espedientea:	Erakundea:
25/2001	NAFARROAKO GOBERNUA HEZKUNTZA ETA KULTURA DEPARTAMENTUA
Nori bidalia:	
	Arrazoiak:
Unibertsitate eta Hizkuntz Politikorako zuzendari nagusiak, maiatzaren 16ko 84/2001 Ebazpenaren bidez, Nafarroan ingeles, frantses eta aleman hizkuntza europarren egoera aztertze inkesta soziolinguistiko bat egiteko lanak kontratatze deialdia onetsi du.	

ESPED.	26/2001
NORK:	Euskalgintzako eragileak, <i>Hizkuntz Eskubideen Behatokia</i> , sindikatuak, zenbait udal eta mankomunitate
NORI:	Nafarroako Gobernua
EDUKIA:	2001ko uztailaren 30eko 203/2001 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantillako zein lanpostu diren euskara jakin beharrekoak eta zer jakite maila behar duten, eta zein lanpostutan hartu behar den euskara jakitea beste batzuen arteko merezimendutzat ezartzen duena.
ARRAZOIA:	Plantillan gero eta gutxiago dira euskara jakin beharra ezarrita duten lanpostuak.
ADMINISTRATIOAREKIKO AUZI HELEGITEA	
Aipatutako erakunde, eragile eta instituzioek botereak eman dizkiote <i>Behatokiko</i> prokuradoreari. Egunean bertan <i>Behatokiko</i> abokatuak administrazioarekiko auzi helegitea iragarri zuen auzitegian.	

Espedientea:	Erakundea:
27/2001	IRUÑEKO UDALA
Nori bidalia:	Iruñeko alkatea
Arrazoiak:	
Auzoko kale errotulu guztiak gaztelania hutsez daude. Kexa jarri dute udaletxean baina ez diete arazoirik eman.	

ESPED.	28/2001
NORK:	Hizkuntz Eskubideen Behatokia
NORI:	Nafarroako Gobernua
EDUKIA:	2001eko urriaren 3ko Ebazpena, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun laguntzaz kanpoko atal eta unitatetako burutzak eta erizaintza unitateetako burutzak merezimendu lehiaketa bidez betetzeko prozedurak arautu eta haietan aplikatu beharreko baremoak ezartzen dituena.
ARRAZOIA:	Euskararen ezagutza ia ez da baloratu. Nafarroan inolako estatusik ez duten hizkuntzen ezagutza gehiago baloratu dute.
GORAKO HELEGITEA:	
SARRERA-DATA:	2001-11-28
IRAUNGITZE-DATA:	2002-02-28
ERANTZUNA:	
OHARRAK	
2002ko urtarrilaren 11n Osasun sailak eskutitza bidali dio <i>Behatokiari</i> helegitea sartzean ez delako ordezkariarik kreditatu. Urtarrilaren 17an fundazioaren botereen kopia, bai eta fundazioen erregistroak igorritako akreditazioa ere, eraman ditu <i>Behatokiak</i> .	

Espedientea:	Erakundea:
29/2001	
Nori bidalia:	Bizkaiko ordezkari-tza-burua
Arrazoiak:	
Kexa jarri duena [REDACTED] erakundeko langilea da. Bilboko bere saltokian <i>Hemen euskaraz</i> idatzia zuen txarteltxo zuen jarria eta [REDACTED] erakundearen zuzendaritzatik kentzeko agindua hartu zuen. Azkenean, agindu hori saltokien garbiketaz arduratzen direnek bete zuten.	

Espedientea:	Erakundea:
30/2001	INE
Nori bidalia:	
	Arrazoiak:
INE egiten ari zen inkestetako langileak ez dira euskaldunak. INEk aukera eman zion Udalari inkestatzaileak proposatzeko, baina Udalak ez zuen aukera hori erabili. Langilea INEk kontratatu behar badu ere, euskaraz jakitea eskatze bada?.	

Espedientea:	Erakundea:
31/2001	INSS
Nori bidalia:	Gipuzkoako, Arabako, Nafarroako eta Bizkaiko Probintzia Zuzendaritzari. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalako estatuko idazkariari
	Arrazoiak:
Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren altxortegi nagusiaren menpeko Gipuzkoako probintzia zuzendaritzak <i>Comunicación de bases de cotización</i> informazio zehaztapena eta Gizarte Segurantzaren estatuko idazkariak sinatutako gutuna bidali dizkie, dena gaztelania hutsean.	

Espedientea:	Erakundea:
32/2001	GASTEIZKO UDALA
Nori bidalia:	
	Arrazoiak:
Udalzaingoaren oposizioetan hizkuntz eskakizun urria dago.	

Espedientea:	Erakundea:
33/2001	INE
Nori bidalia:	
	Arrazoiak:
INE erakundeak prestatzen duen inkesta elebitan bidali diote. Legearen arabera elebakar jasotzeko eskubidea du. Halaxe eskatu egin du, baina ez diote ezer bidali.	

Espedientea:	Erakundea:
34/2001	NAFARROAKO GOBERNUA
Nori bidalia:	
	Arrazoiak:
Nafarroako Gobernuak euskarazko hedabideei urteko dirulaguntza emateko deialdian baldintzak aldatu ditu. Euskara hutsezko <i>Nafarkaria</i> gehigarriak ez du dirurik jasoko, bai ordea, beste hedabide batzuek, astean behin orri bat baino euskaraz ateratzen ez dutenek.	

Espedientea:	Erakundea:
35/2001	OLAZTIKO UDALA
Nori bidalia:	
	Arrazoiak:
Udal Ordenantzen artikuluko batean D eredu ikasteko herriik kanpo joan behar zuten haurrendako dirulaguntzak ematea aurreikusita zegoen eta alkateak dirulaguntzak baimendu zituen. Olaztiko udal talde batek helegitea jarri zuen alkatearen erabaki horren kontra. Epaiak Ordenantzaren artikuluko hori legez kanpoko delako adierazi eta Ordenantzak aldatu eta hartutako dirulaguntza itzultzerako behartu ditu Udala eta D ereduko haurren gurasoak.	

Espedientea:	Erakundea:
36/2001	ESPAINIAKO POLIZIA NAZIONALA
Nori bidalia:	Gipuzkoako Gobernu Ordezkariordea
	Arrazoiak:
Tolosako udaletxean nortasun agiriak egitera joaten den funtzionario batek ez zion herritararen alabari nortasun agiria egin jaiotze agiria euskara hutsez zegoelako. Hiru aldiz bertaratu da horretara eta oraindik ez du nortasun agiria eskuratzetik izan.	

Espedientea:	Erakundea:
37/2001	EUSKO JAURLARITZA JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Nori bidalia:	Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburua
	Arazoia:
Justizi Administrazioak bertaratzeko bidali zion eskutitza gaztelania hutsez zegoen. Bertaratutakoan, galderak gaztelaniaz egin zizkioten eta ordu bete igarotakoan itzultzailea joan zen.	

Espedientea:	Erakundea:
38/2001	EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
Nori bidalia:	Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua
	Arazoia:
UOHEI, oinarriko hezkuntzarako urrutiko ikastetxea delakoaren bidez DBH ikasketak ateratzeko matrikulatu nahi zuen alaba. Ikasketa horiek gaztelania hutsez besterik ezin daitezkeela egin esan zioten.	

Espedientea:	Erakundea:
39/2001	DONOSTIAKO UDALA
Nori bidalia:	Donostiako alkatea
	Arazoia:
Orain dela hiru urte, Donostiako udalaren udalbatzak euskararen normalkuntzarako plan orokorra onartu zuen eta aurtengo aurrekontuetan ere diru-kopurua aurreikusi dio. Hala ere, plana ez dute indarrean jarri. Bestalde, Donostiako plan estrategikoa prestatzen ari dira eta horri buruzko informazioa webgunean paratu dute. Euskarari garrantzi gutxi aitortzen zaio plan horretan, are gehiago, ondare kultural gisa soilik hartzen da euskara.	

Espedientea:	Erakundea:
40/2001	EUSKO JAURLARITZA JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Nori bidalia:	Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburua
	Arazoia:
Elkarte bat onura publiko izendatzeko paper guztiak euskara hutsez bidali zituen. Sail horretako arduradunak ez baitu euskaraz ulertzen, paper guztiak erdaraz ere bidaltzeko eskatu zion herritarrari, bestela, itzulpen zerbitzuagatik tramitazioa luzatuko baitzen.	

Espedientea:	Erakundea:
41/2001	Justizia Ministerioa. Espainiako estatuko administrazioa
Nori bidalia:	
	Arazoia:
Donostiako Julio Caro Baroja kaleko jabetza erregistroan errotilazio gehiena gaztelania hutsez agertzen da eta tramitazioarako papertegi guztia ere ez dago elebitan. Erreklamazio orri ofizialak eskuratzetik ez zuen izan gertatutakoa jakinarazteko.	

Espedientea:	Erakundea:
42/2001	EUSKO JAURLARITZA JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Nori bidalia:	Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburua
	Arazoia:
Tolosako 3.epaitegian aitorten guztia euskaraz egin arren, sinatzeko momentuan, gaztelania hutsez eman zizkioten aktako paper guztiak.	

Espedientea:	Erakundea:
43/2001	RTVE NAFARROAKO AHOLKU KONTSEILUA
Nori bidalia:	Nafarroako RTVE Aholku Kontseiluko presidentea
	Arazoia:
Nafarroako RTVEko Aholku Kontseiluak duen webgunean gaztelania hutsez agertzen da.	

Espedientea:	Erakundea:
44/2001	
Nori bidalia:	ko Zuzenari Nagusiaren ondokoa
	Arazoia:
supermerkatuetan marka duten produktuek lau hizkuntzatan daramate idatzi bat. Azken garaiotan, informazioaren atal garrantzitsu bat hasi da gaztelania hutsean agertzen.	

Espedientea:	Erakundea:
45/2001	EITB – EUSKADI IRRATIA
Nori bidalia:	Euskadi Irratiko zuzendariari
	Arazoia:
Euskadi Irratiak euskararen hizkuntza kalitatea ez du behar bezala zaintzen, maiz gaztelaniazko hitz eta kalko joskeretara jotzen baitu.	

TXALOTZEA	
Espedientea:	Erakundea:
46/2001	EUSKADIKO KUTXA
Nori bidalia:	Zuzendari Orokorra
	Arazoia:
Euskadiko Kutxarekin harreman guztia euskaraz izateko aukera dago eta bidaltzen dituzten idatzi guztiak euskaraz ere badaude.	

Espedientea:	Erakundea:
47/2001	JATETXEA
Nori bidalia:	jatetxeko nagusiari
	Arazoia:
Bazkaltzera joan eta menuaren karta gaztelaniaz zegoen. Euskarazkoa eskatu eta horrelakorik ez zela adierazi zioten jatetxekoek.	

Espedientea:	Erakundea:
48/2001	EHU
Nori bidalia:	Euskararako errektoreordea
	Arazoia:
Unibertsitatetik gutuna heldu zitzaion telefono bidezko inkesta egingo ziotela adieraziz. Inkesta gaztelania hutsez izan zen, herritarrak ikasketa guztiak euskaraz egin bazituen ere.	

Espedientea:	Erakundea:
49/2001	INE
Nori bidalia:	
	Arazoia:
Estatistika Institutu Nazionalaren ordezkariak bidali dion dokumentazio osoa ez dago euskaraz.	

Espedientea:	Erakundea:
50/2001	NAFARROAKO LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPARTAMENTUA
Nori bidalia:	Foruzaingoburua
	Arazoia:
Nafarroako Foruzaingoko hiru foruzainek NA-240 errepidetik autoz zihoan herritarra geldiarazita, horrek euskaraz harremana izateko duen eskubidea ez zitzaion errespetatu eta kaltetua sentitu zuen bere burua euskaraz egiteagatik	

Espedientea:	Erakundea:
51/2001	GASTEIZKO UDALA
Nori bidalia:	Gasteizko alkatea
	Arazoia:
Gasteizko udaletik igorritako jakinarazpen ofizialak gaztelania hutsez daude.	

Espedientea:	Erakundea:
52/2001	GASTEIZKO UDALA
Nori bidalia:	Gasteizko alkatea
	Arazoia:
Gasteizko udaletik igorritako jakinarazpen ofizialak gaztelania hutsez daude.	

Espedientea:	Erakundea:
53/2001	Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua, I.G.
Nori bidalia:	

Arrazoia:

Enpresak euskalduntzeko eskolak lantegian bertan hartzeko aukerak eskaintzen ditu. Langile batek alfabetatzeko kanpora irten behar du eta enpresak ez dizkio ordu guztiak lanordu gisa onartzen.

Espedientea:	Erakundea:
54/2001	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
Nori bidalia:	Bizkaiko Ahaldu nagusia

Arrazoia:

Bizkaiko Foru Aldundia bisitatzen joan eta sarrerako atean zegoen langileari galdera eginda, gaztelaniaz hitz egiteko eskatu zion seguritate zaindariak.

Espedientea:	Erakundea:
55/2001	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
Nori bidalia:	Gizartekintza sailerako foru diputatua

Arrazoia:

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza sailetik igorritako eskutitza gaztelania hutsez agertzen da, berak eskaria euskara hutsez egin bazuen ere.

Espedientea:	Erakundea:
56/2001	NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA ETA KULTURA DEPARTAMENTUA
Nori bidalia:	Nafarroako Liburutegi Sarearen Unitate Teknikoaren burua

Arrazoia:

Nafarroako Liburutegi Publikoen Sareak irakurle txartelak berritu dituzte eta orain, lehen elebikoak ziren txartelen ordean, gaztelania hutsezkoak dira.

Espedientea:	Erakundea:
57/2001	NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA ETA KULTURA DEPARTAMENTUA
Nori bidalia:	Nafarroako Liburutegi Nagusiko zuzendaria

Arrazoia:

Nafarroako Liburutegi Nagusian elebitan zegoen errozulazioa gaztelania hutsez paratu dute.

KEXA IZAERA GABEA	
Espedientea:	Erakundea:
58/2001	EUSKO JAURLARITZA LEHENDAKARITZA
Nori bidalia:	

Arrazoia:

EAEko Lehendakaritzak antolatutako manifestazioetan erabili diren pankartetan leloa soilik euskaraz azaldu da. Horrek euskara bortxakeriarekin lotzen du.

TXALOTZEA	
Espedientea:	Erakundea:
59/2001	FORUM
Nori bidalia:	Zuzendari jauna

Arrazoia:

FORUM enpresak Usurbilgo Urbil merkataritza zentroan duen egoitzan euskararen presentzia egokia da eta langileak euskaldunak dira.

Espedientea:	Erakundea:
60/2001	JATETXE [REDACTED]
Nori bidalia:	[REDACTED] nagusia

Arrazoia:

Jatetxe [REDACTED] bazkaltzera joan eta menuaren karta gaztelaniaz zegoela eta, euskarazkoa eskatu eta horrelakorik ez zela adierazi zioten jatetxeok.

Espedientea:	Erakundea:
61/2001	EUSKO JAURLARITZA – LEHENDAKARITZA
Nori bidalia:	Eusko Jaurlaritzako Prentsa eta Komunikazio zuzendaria
	Arazoia:
Eusko Jaurlaritzara deitu zuen, <i>Komunikazioaren gidaliburua</i> liburuan berrikuntzak sartzeko asmoz, den-dena gaztelaniaz egin behar izan zuen.	

Espedientea:	Erakundea:
62/2001	EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Nori bidalia:	Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburua
	Arazoia:
Urtarrilaren amaieran edo otsailaren hasieran epaitegira joan beharko du. Epaileak badaki euskaraz, baina fiskalak eta idazkariak jakingo ez dutelakoan dago. Epaiketa euskara izatea nahi du, itzultzailerik gabe.	

Espedientea:	Erakundea:
63/2001	ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK
Nori bidalia:	
	Arazoia:
Ebazpen berria izan da Biltzar Nagusietan. Horren arabera, euskara hutsean aurkeztutako idatziak lehenago aurkeztu beharko dira	

Espedientea:	Erakundea:
64/2001	██████████ ELKARTEA
Nori bidalia:	██████████ Elkartearen presidentea
	Arazoia:
██████████ azokan eguberriak direla eta, jarri dituzten argizko bi mezuak gaztelaniaz baizik ez daude.	

Espedientea:	Erakundea:
65/2001	IRUÑEKO UDALA
Nori bidalia:	Iruñeko Udaleko Kultura Zinegotzi ordezkaria
	Arazoia:
Gayarre antzokiko 2002ko urtariletik martxo bitarteko programazioa biltzen duen liburuxka gaztelania hutsez idatzita dago, bai eta euskarazko ikuskizunei dagokiena ere.	

Espedientea:	Erakundea:
66/2001	IRUÑEKO UDALA
Nori bidalia:	Gayarren Antzokiko Udal Fundazioaren zuzendaria
	Arazoia:
Gayarren antzokiko errotulazio guztia gaztelania hutsez paratu dute, bai eta abenduaren 18an euskarazko ikuskizuna egon zelarik, horren inguruko informazioa ere.	

Espedientea:	Erakundea:
67/2001	BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA
Nori bidalia:	Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidentea
	Arazoia:
Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak <i>Violencia doméstica. Guía práctica de actuación contra la violencia doméstica</i> izeneko eskuorria banatu egin du, dena gaztelania hutsean idatzita dagoela.	

Espedientea:	Erakundea:
68/2001	██████████ KAFETEGIA
Nori bidalia:	██████████ kafetegiko nagusia.
	Arazoia:
██████████ jatetxera telefonoz deitu zuen tokia hartzeko. Euskaraz hitz egin eta iseka erantzun zioten.	

Espedientea:	Erakundea:
69/2001	ESPAINIAKO GOBERNUA – PRESIDENTZIA
Nori bidalia:	Espainiako Gobernuaren presidentea
	Arazoia:
Espainiako presidentea 2002ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko den euroaren inguruko biorrikoa eta eskutitza banatu ditu biztanleen gutunontzietan eta bi dokumentuok gaztelania hutsean idatzita daude.	

Espedientea:	Erakundea:
70/2001	UDALBILTZA
Nori bidalia:	Udalbiltzako Batzorde Eragilearen Euskararako arduraduna
	Arazoia:
Gara egunkarian agertutako iragarkian gehiena gaztelaniaz idatzita zegoen.	

Espedientea:	Erakundea:
71/2001	EUSKO TREN
Nori bidalia:	Eusko Trenbideak, zuzendari nagusia
	Arazoia:
Eusko Tren erakundeak argitaratzen duen aldizkaria jaso du eta guztia gaztelaniaz dagoela ohartu da.	

Espedientea:	Erakundea:
72/2001	EUSKO TREN
Nori bidalia:	Eusko Trenbideak, Antolakuntza eta Giza Baliabide saileko zuzendaria
	Arazoia:
Iraila aldera Eusko Tren erakundeari buruzko inkesta bat egitera joan zitzaion inkestari bat. Galdera guztiak gaztelania hutsez egin zituen. Euskaraz egiteko eskatu zionean, buelta eman eta alde egin zuen inkestariak.	

Espedientea:	Erakundea:
73/2001	
Nori bidalia:	Areetako (Getxo) kale nagusiko sukurtsaleko zuzendaria
	Arazoia:
Areetako (Getxo) kale nagusian duen sukurtsaleko ohar guztiak, bai eta errotulu guztiak ere, gaztelania hutsez daude.	

Espedientea:	Erakundea:
74/2001	RENFE
Nori bidalia:	Komunikazio eta Kanpo Harremanetarako zuzendaria Bilbon
	Arazoia:
RENFEK Tolosan duen geltokian megafoniaren bidez botatzen diren mezu guztiak gaztelania hutsez izaten dira.	

Espedientea:	Erakundea:
75/2001	
Nori bidalia:	enpresako zuzendaria Iparraldean
	Arazoia:
enpresak produktuak iragartzeko bidali dituen aldizkariak gaztelaniaz baizik ez daude.	

Espedientea:	Erakundea:
76/2001	POSTA ETA TELEGRAFOAK
Nori bidalia:	Debako postetxeko zuzendaria
	Arazoia:
Debako postetxean <i>telegrafoa</i> hitzak akats ortografiko dauka: euskaraz ez dagoen azentu marka agertzen du. Bertaratu eta gaizki zegoela adierazi ostean, ez zioten jaramonik egin.	

Espedientea:	Erakundea:
77/2001	OSAKIDETZA
Nori bidalia:	
	Arrazoiak:
OSAKIDETZAK Getxon duen osasun zentroan dagokion medikua euskalduna izatea eskatzen du.	

KEXA IZAERA GABEA	
Espedientea:	Erakundea:
78/2001	DISKOTEKA
Nori bidalia:	
	Arrazoiak:
diskotekako langileek ez dakite euskaraz	

KEXA IZAERA GABEA	
Espedientea:	Erakundea:
79/2001	
Nori bidalia:	
	Arrazoiak:
kaleko sukurtsaleko langile guztiek ez dakite euskaraz.	

KEXA IZAERA GABEA	
Espedientea:	Erakundea:
80/2001	TABERNA
Nori bidalia:	
	Arrazoiak:
tabernako langileek ez dakite euskaraz.	

KEXA IZAERA GABEA	
Espedientea:	Erakundea:
81/2001	TABERNA
Nori bidalia:	
	Arrazoiak:
tabernako langileek ez dakite euskaraz.	

Espedientea:	Erakundea:
82/2001	EUSKO TREN
Nori bidalia:	Eusko Trenbideak, Komunikazioburua
	Arrazoiak:
Eusko Tren erakundearen webgunea gaztelania hutsez agertzen da.	

Espedientea:	Erakundea:
83/2001	BARRUNDIAKO UDALA
Nori bidalia:	Barrundiako udaleko alkatea
	Arrazoiak:
Barrundiako udalak, eguberria dela eta, Olentzero antolatzen du udalerriko umeentzat, eta azkeneko bi urteotan Olentzerok ez zekien euskaraz.	

Espedientea:	Erakundea:
84/2001	EUSKO JAURLARITZA – HERRIZAINGO SAILA
Nori bidalia:	Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailburua
	Arrazoiak:
Bi ertzainek dokumentazioa eskatu zioten eta herritarrak ez zuen aukera izan euskaraz adierazteko. Ertzainek euskara ulertu ere ez zuten egin.	

TXALOTZEA	
Espedientea:	Erakundea:
85/2001	ALDAY TECHNOLOGICS
Nori bidalia:	Alday-technologies enpresako zuzendaria
Arrazoiak:	
Umeentzako ordenagailu jostailuak merkaturatu izanak txalotzea merezi du haur euskaldunei orain arte ez zuten aukera bat eman baitie.	

Espedientea:	Erakundea:
86/2001	
Nori bidalia:	ko arduraduna Gasteizen
Arrazoiak:	
k Gasteizen zabaldu berri duen saltokian euskara ez da erabiltzen, ez produktuen iragarkietan, ez bozgorailuetako mezuetan, ez eta langileen zerbitzuan ere.	

Espedientea:	Erakundea:
87/2001	
Nori bidalia:	prentsaaburuari
Arrazoiak:	
atera duen materialeko etiketak, kirol arroparenak hain zuzen ere, gaztelania hutsean daude.	

Espedientea:	Erakundea:
88/2001	NAFARROAKO GOBERNUA
Nori bidalia:	Kirol eta Gazteri Nafarroako Institutuko kudeatzaile zuzendaria
Arrazoiak:	
Nafarroako Gobernuak Kirol eta Gazteri Nafarroako Institutuak berriki <i>Guía de primeros auxilios jurídicos para jóvenes</i> argitaratu du gaztelaniaz bakarrik. Bertan gazteendako erabilgarria den zenbait eskubide eta prozedura administratiboren berri ematen zaie, baina hizkuntz eskubideen aipurik ez dago.	

Espedientea:	Erakundea:
89/2001	GASTEIZKO UDALA
Nori bidalia:	Gasteizko alkatea
Arrazoiak:	
Gasteizko udalak argibide ezberdinak (aparkalekua, trafikoa, data, tenperatura, ordua, eta abar) dituen lau taula argidun jarri ditu hiriko zenbait kaleetan. Argibide-taulek gaztelaniaz baizik ez dituzte argibideak ematen.	

Espedientea:	Erakundea:
90/2001	GASTEIZKO UDALA
Nori bidalia:	Gasteizko alkatea
Arrazoiak:	
Gasteizko udalak, eguberria dela eta, hiriko kaleetan jarritako gabon-argizko mezuak gaztelaniaz baizik ez daude.	

Espedientea:	Erakundea:
91/2001	NAFARROAKO GOBERNUKO LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPARTAMENTUA
Nori bidalia:	Nafarroako Gobernuak presidentea
Arrazoiak:	
Nafarroako Gobernuak 2002ko urtarrilaren lehenean indarrean sartu den euroaren inguruko informazio idatzia banatu du biztanleen posta ontzietan eta informazioa gaztelania hutsean idatzita dago.	

Espedientea:	Erakundea:
92/2001	
Nori bidalia:	dendako nagusia
Arrazoiak:	
kateak Donostian duen dendara joan eta errotulazio guztia gaztelania hutsez zegoela ohartu da.	

Espedientea:	Erakundea:
93/2001	OSAKIDETZA
Nori bidalia:	
	Arazoia:
Osakidetzak hurrengo urterako lan eskaintza publikoaren bitartez 1.600 lanpostu betetzeko deialdia egin behar du. Euskararen ezagutza ez da lanpostu bakar baterako ere eskatzen, meritutzat joko da eta, gainera, puntuazio eskasa emanda..	

Marcelo Zelaieta, 75
A-3 erakina, 25. bulegoa
31014 Iruñea

Telefonoa: 948 146 172

Faxa: 948 123 743

Posta elektronikoa: behatokia@behatokia.org

Webgunea: <http://www.behatokia.org>